

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Nori hitz egin behar dio Otegik?

IÑAKI ALTUNA > 11

INDEPENDENTZIAZ HAUSNARTZEN (IV):

Jule Goikoetxea:

Euskal estatugintza feminista > 22

2016ko martxoaren 5a | X. urtea • 458. zbk.
0,50 euro

GAUR8 

mila leiho zabalik
www.gaur8.info

**DENBORAREN ERABILERA,
PAREKIDETASUNA NEURTZEKO
TERMOMETROA > 12**

Elkarrizketa: Soraida Hussein,
emakume palestinarra 04

Fukushimari buruzko gezurrak
agerian, bost urteren ostean 07
Etxeko lanak eta zaintza,
parekidetasuna neurtzeko
termometroa 12

Elkarrizketa: Jule Goikoetxea,
euskal estatugintza feministaz 22

ENEEK: Ekoudalatx mintegi
ekologikoa 26

Infraganti: Oihana Iguaran 28
Behatxulotik 31



SINADURAK:

- 03 **Gorka Elejabarrieta:** Ispiluak
- 10 **Saioa Aginako:** Liburutegia
- 11 **Iñaki Altuna:** Nori hitz egin
behar dio Otegik?
- 18 **Exprai**
- 19 **Antton Izagirre:** Milaka
kilometro
- 19 **Andoni Egia:** Herri boterea
- 20 **Beñat Gaztelumendi:**
Belodromoa
- 21 **Laura Mintegi:** Alderdi berriak
eta politika berria
- 30 **Maria Gonzalez Gorosarri:**
Europa gerran dago



{ datorrena } **Gorka Elejabarrieta**

Ispiluak

Nazioarteko ispiluan begiratzen diogu maiz gure buruari, eta beste prozesu batzuen garapen eta porrotek gure bidea definitzen laguntzen digute. Gure galderen erantzunak aurkituko ez ditugula jakinik eta gure errealitate espezifikokoaren filtroa ezarriz, bidean jarraitzen dugu. Gehiago dira, baina gaur hiru kasu-ri erreparatu nahi nieke. Azken hamabost urteotan Faroe uharteetan, Eskozian, Groenlandian edo Flandrian independentismoak gorakada handia izan du, eta independentziarako bidean pauso garrantzitsuak eman dituzte. Batera jarri ditut estatutik gabeko lau herriok, berdinak izan gabe, badituztelako zenbait antzekotasun.

Lehena eta garrantzitsuenak: Danimarka, Erresuma Batua eta Belgikaren jarrera. Egun (inportantea da oraingo kontua dela azpimarratzea, ez baita beti horrela izan) herriokiko daukaten jarrera demokrazian eta herrion borondatearen errespetuan oinarrituta dago. Independentziaren kontra egonik ere, balizko erreferendum baten emaitza onartuko dute. Jarrera horrek estatuon eta estatutik gabeko herrion arteko talkaren indar osoa proiektuetan jartzen du –hau da, independentistek eta unionistek eskaintzen duten proiektu ezberdin horretan–. Eta batzuei zein besteei dagokie bere proiektuaren aldeko gehiengoak eskuratzea.

Bigarrena, herriotan eta gaur egun, behintzat, independentismoaren baitan alderdi hegemoniko bakarra dago; besteekiko nagusitasuna oso nabaria da eta horrek independentismoaren barne kompetentziak ekiditen ditu maila batean. Independentzia ez da alderdi independentista ezberdinen arteko arma elektorala.

Azkenik, Europar Batasunaren faktorea aipatu nahi nuke. Modu batean edo bestean Europar Batasunaren proiektuaren garapenak independentismoa indartu egin du. Faroe uharteak eta Groenlandia ez daude Europar Batasunean eta Kopenhagek Danimarkako hainbat kompetentzia Bruselara transferitzen dituen abiada berdinean, Faroe uharteak eta Groenlandia estatu egiturak eraikitzen ari dira. Eskozia Europar Batasun zale dela esan dezakegu, Ingalaterra ez den proportzio berean, eta mar txan dagoen balizko “Brexit” prozesua Eskoziak estatu propioa bereganatzeko azken bultzada izan daiteke. Eta Flandriaren kasuan zer esan, bere hiriburu historikoa, Brusela, Europar Batasunaren hiriburua ere bada. Bruse-

la Flandriatik aldentu eta europar hiriburu bilakatzen ari den neurrian, Flandria Brusela bere independentziaren bide orrian sartzeko formulak aztertzen ari da, modu horretan bere korapiloric handiena askatu ahal izateko.

Bigarren taldean Katalunia jarriko nuke. Espainiar Estatuak Danimarkarekin baino Turkiarekin parekotasun handiagoak ditu, eta, ondorioz, Kataluniarekiko daukan jarrera eta praktika ez datoz bat nazioarteko estandar demokratikoekin. Horrek Katalunia eta Estatuaren arteko talka beste parametro batzuetara eramaten du, parametro demokratikoetara. Maila batean demokrazia falta hori independentista sortzaile dela esan dezakegu, eta, zentzu horretan, proiektu independentista indartu egiten du. Baina, era berean, prozesua asko zailtzen du.

Azkenik Txipre eta Irlanda aipatu nahi nituzke; gure Europa zahar honetan aurrera eta pauso irmoz jarraitzen duten beste bi prozesu. Eta bereziki Irlanda, guretzat urteetan bidelagun izan den herria. Bizi izan duten gatazka armatuak trintxera asko sortu ditu eta gutxietsi ezin dugun ondorio bat dauka horrek: pertsonen eta ko-

Espainiar Estatuak Danimarkarekin baino Turkiarekin parekotasun handiagoak ditu, eta, ondorioz, Kataluniarekiko daukan jarrera eta praktika ez datoz bat nazioarteko estandar demokratikoekin

lektiboen irmotasuna. Horrek pentsaera batetik bestera joateko bidea luzeago bihurtzen du. Ondorioz, konponbide prozesua eta independentzia (bi kasuotan independentzia baino estatuaren, irlaren, batasuna) errail berdinean doaz nahitaez, bata besteak laguntzen baitu. Sinn Fein, Irlandako hauteskundeetan lortu duen emaitzarekin berriz ere ikusi den bezala, bere helburu taktikoak helburu estrategikoen mesedetan jartzen maisu da.

Euskal Herriak hiru egoera ezberdinok parekotasun eta ezberdintasun nabariak dauzka, eta halabeharrez bere bide propioa asmatu beharko du, orain arte bezala une oro inizatiba politikoa eta taktika eguneratzen eta azken helburuen mesedetan jartzen. Irlandar errepublikanoek horrenbestetan errepikatzen duten bezala, gure erabaki guztiak helburu estrategikoen parean jarritz eta horiek lortzeko lagungarri edo oztopo diren ongi neurtuz. •

«Palestina ez da aske izango emakume palestinarrek aske ez diren bitartean»

Kolonbian jaio zen Soraida Hussein, familia palestinar baten baitan. Urte batzuk geroago arbasoen lurrera itzultzea erabaki zuen Hussein sendiak, Ramallah hirian errotoz. Betidanik Palestinaren askatasunaren aldeko borrokan aritu da Soraida Hussein, emakumeen eskubideen aldeko defentsa alboan utzi gabe betiere. «Emakume askerik gabe ez dugu Palestina askerik izango», nabarmentzen du Women's Affairs Technical Committee (WATC) batzordeko kideak. Egunotan Euskal Herrian izan da, Biladi taldearen eskutik. Bide batez, Txalaparta argitaletxeak kaleratu eta Mar Gijon Mendigutiak idatzi duen “Historia del movimiento de mujeres de Palestina” liburuaren aurkezpenetan izan da Iruñean eta Bilbon. Palestinaren eta emakumeen aldeko borroka luze horretan Euskal Herriarekin lotura zuzena ere izan du, “Egin” egunkariko Palestinako korrespontsala izan baitzen.

Emakumearen egoera larria da munduko toki askotan. Klase eta genero zapalkuntza pairatu behar du. Palestinan, horri okupazio sionistaren ondorioak ere gehitu behar zaizkio. Egia da azkenaldian okerrera egin duela Palestinako emakumeen egoerak, elkarrekin lotutako elementu anitz tarteko. Gehiago borrokatzen dugu, gehiago aktibatzen gara, gehiago mugitzen gara, gehiago lan egiten dugu, baina, aldiz, ez dugu behar duguna lortzen. Azkenaldian betiko borroka dugu aurrez aurre, baina arerio eta oztopo berriak gehituta. Horregatik diot behar adina baino gehiago borrokatu arren behar adina baino gutxiago lortzen dugula. Sistema guztia erabat aldatu da, bai Palestina mailan bai Ekialde Hurbilean bai mundu mailan.

SORAIDA HUSSEIN

EMAKUME PALESTINARRA

Palestina askatzeko borrokan bide luzea egin du Soraida Husseinek. Baita emakumeen eskubideen defentsan ere. Bi borrokok banaezinak direla dio irmo.

Martxelo Diaz



Lehen baino askoz zailagoa egiten zaigu guztia. Inguruan gertatzen dena gertatuta ere, okupazioak berdin segitzen du. Onura ekonomiko handiak dakartza Israelgo Estatua deitzen duten horrentzako. Osloko Akordioaren ondoren (1995), errazagoa izan da Israelentzat okupazioa mantentzea. Orain betebeharrak batzuk eta lan zikinaren zati bat Aginte Palestinarraren ardura dira. Oztopo nagusi horrek horretan dirau. Gainera, lidergo falta izan dugu palestinarren artean. Ez gara heldu herriak uste zuen helmugara. Inoiz ez dira gizarte gaiak jorratu. Egoera politikoa lasaia zenean –orain eromen hutsa da–, ez ginen gai izan gizarte gaien agenda martxan jartzeko. Egoera berrian hori lortzea askoz ere zailagoa da. Palestinan gizarte gaiek ez dute lehentasunik izan. Eta emakumeen egoerak are gutxiago.

Palestina inguruko herrialdeetan Udaberri Arabiarra eman zen. Batzuentzat itxaropen izpia izan zen, baina, aldiz, eskubideen arloan atzerapauso nabarmenak eman dira ordutik. Jatorrizko Udaberri Arabiarra itxaropentsua izan zen. Baina, tamalez, une egokiaren zain, batzuek bazuten beste zerbait prestatuta. Eta egoera baliatu zuten euren proiektua bultzatzeko. Hori bai, Estatu Islamikoren proiektuak ezin du jarraipenik izan. Jendeari burua moztea oinarri duen proiektu batek ezin du iraun. Behin-behinekoa da. Denbora eta sufrimendua beharko dira, baina amaituko da. Ez da Otomandar Inperioa izango, edo jada ia 70 urte irautea dituen okupazio israelarra. Baina ondorio larriak utziko ditu atzean. Eskualdean gaudenok prezio bat ordainduko dugu, baina proiektu hori sostengatu dutenek ere ordaindu beharko dute.

Tunisian edo Egipton ere atzerapausoak eman dira, non eta lehen emakumeen aldeko politikak zituzten tokietan. Bai. AEBen eta Sobietar Batasunaren garaietan mundua bipolarra zela esaten zen. Idazle eta

filosofo islamikoek, aldiz, hiru polo zeudela esaten zuten. Soritzen ari zen hirugarren polo bat aipatzen zuten. Ideologia erlijio-soa toki guztietan indartzen ari da eta gero eta sostengu handiagoa du. Islamak proiektu argiagoa du, sistema ekonomiko, politiko eta soziala ere baduelako. Tunisian, Egipton eta beste toki batzuetan hauteskundeetako emaitzak ez onartzea akats larria izan zen. Egipton gertatutakoa ezin da parekatu Tunisian gertatutakoarekin. Aurreikusitako proiektu bat inposatu zuten. Estatua salbatu zutela da mezu ofiziala, baina horren atzean eztabaida luzea dago. Islamdarrek Egipton zuten soilik Gobernua sartzeko helburua. Palestinan, adibidez, 2006an hauteskundeak egin ziren eta Hamasek, alderdi islamista batek, irabazi zituen. Hamasi boikota egin zioten eta egun egoera politiko larrian gaude. Nazioarteko komunitatea ordezkatzeko estatuen esku hartzeak ondorio larriak izan ditu. AEBak, Kanadak eta Europak boikot egin zioten Hamasi. Eta Hamas Gazan gotortu zen. Hamas bera izan zen hauteskundeak irabazi izanaz harritzen lehena, eta, hala, barne mailan gobernatzeko gai ez zirela onartzen zen. Emakume palestinarren eskubideak, baina, atzera egin zuten Hamasekin? Egia esan, ez. Ordura arte ez zen Palestinan emakumeen eskubideen aldeko legerik. Beraz, ez zegoen zer galdu. Aurreko gobernuak ez zuten egin behar zutena egin alor horretan. Kazetari ugari Hamasen etorrerak Palestinako emakumeak arrisku egoeran kokatzen al zituen galdetzen ziguten etengabe. Baina aldeaz aurretik arrisku egoeran ginen dagoeneko! Hamas baino lehenago izandako gobernuak ez zuten ezertxo ere egin gizarte arloan. Beraz, ezin ziguten kendu eskuratu gabe genuen zerbait. Ez dugu eskubiderik. Lege zaharrak ditugu oraindik. Emakumeen eskubideen aldeko borroka ez da lehentasuna gure artean, eta ez da okupazioaren aurka borrokatu behar dugulako, mentalitate patriarkala nagusi delako baizik.

Hori da arazoetako bat, ezta? Palestinako mugimenduek, Palestina Askatzeko Erakundeak (PAE) berak barne, ez dituztela uztartu emakumeen eskubideen aldeko borroka eta askapena nazionaleko borroka.

Palestina askatzeko helburuarekin PAE sortu zuten gizon eta emakumeen belaunaldi batek egin zuenaren ondorioa da. Ideia sozial oso oinarritzakoak ziztuzten, eta, aldiz, ideologia nazional zabal. Hala, ezkerreko palestinarrak ez zuten agenda soziala defendatzeko indar nahikorik izan. Palestina Askatzeko Herri Fronteak (PAHF) “sozialismoa ala hil” aldarrikatzen zuen adibidez, baina ez zuen agenda sozial eta ekonomikorik garatzerik izan. Ezinezkoa izan zen Palestinako ezkerrearentzat agenda hori barne eztabaidetan mahai gainean jartzea. Belaunaldi horretako kideek izaera patriarkala zuten.

Osloko Akordioaren osteko lehen hamar urteetan inoiz baino leku gehiago izan zuen agenda sozialak eta emakumearen egoerak. Modu inuzentean Estatu palestinarra sortzen ari ginela uste genuen, eta hamar urte eman genituen lanean etengabe etortzearen Estatu palestinarra hori guztia kontuan izan zezan. Jendarte patriarkalaz hitz egiten zen. Zoritxarrez, Israelek inbasio militar bat egin eta Arafat hil zuen. Eta orain ezin dezakegu esan agenda sozial hori indarrean denik. Azken hiruzpalau urteotan, hori bai, nazionalismoa eta feminismoa uztartzen ari gara, alor soziala eta askapen nazionala. Urte luzez egindako borroken fruitua dela esan genezake. Eskarmentu handia dugu. Aldarrikapen nazionala soilik ez doa inora. Aldarrikapen sozial edo feminista bakarrik ez doa inora. Eskutik joan behar dute. Ondorio teoriko hori aspalditik genuen, baina azkenaldian praktikara eramaten ari gara. Zerbait berria eta ona dugu esku artean.

Zeintzuk dira emakume palestinarren oinarritzako aldarrikapen nagusiak?

«Estatu Islamikoaren proiektuak ezin du jarraipenik izan. Jendea burua moztea oinarri duen proiektu batek ezin du iraun. Denbora eta sufrimendua beharko dira, baina amaituko da»



Legeak, politikak, inbertsioak, dena. Adibidez, 6oko hamarkadatik indarrean dugun lege batek gizonari emakumea hiltzen uzten dio. Aitzakia bakarra beste gizon batekin ikusteak izugarrizko amorrua eragin izana da. Legeak gizonaren eraso babes-ten du; ez ditu emakumeak, seme-alabak edo familia babesten. Lege zaharra da eta lege berriak behar ditugu. Ikastetxeetan ere curriculum berriak behar ditugu. Komunikabideetan plan bat garatzea ere beharrezkoa da, emakumeen aldeko mezuak zabaltzeko. Orain ditugun komunikabideak oso itxiak dira pentsamoldez. Gobernuaren alde egiten dute beti eta egun dugun Gobernu inoiz izan dugun okerrenetakoa da. Egitasmo horiek guztiak landu beharra dugu.

Epe luzera begira, palestinarren pentsamoldea aldatzea izango da zuen xedeetako bat. Bai, hori da guk gehien lantzen dugun arloa; herritarren pentsamoldea aldatzen saiatzen ga-

ra. Zoritxarrez gure mezua hedatzeko gunerik ez da. Askotan bakardadean aritzen gara. Sostengua ematen digun jendea topatzen dugu erabakigune edo komunikabideetan, baina ez modu iraunkorrean; hortaz, ez du ez indarririk ez eraginik.

Inurri lana dirudi, ezta?

Askotan, tamalez, bai.

Aurrerapenak lortu dituzue?

Asko. Maila indibidualean, adibidez, emakume askok lehen nola pentsatzen zuten eta orain nola pentsatzen duten kontatzen digute. Orain arte ez dugu lortu maila indibidualean ematen diren aldaketa horiek maila orokorrera pasatzea, gainean dugun sistemarengatik.

Dena den, epe luzera begira pentsamoldeetan lorturiko aldaketok indartsuak dira. Uzta jasotzeko alea erein behar da. Bai, eta adibide ugari ditugu. Emakume bat 15 urterekin ezkondu zuten. Gure tailerretan

ematen diren eztabaidetan parte hartu eta gero erabaki bat hartu zuen: alabak ez dituela ezkonduko ikasketak amaitu arte. Eztabaida sutsuak izan zituen senarrarekin hori dela eta. Guk sostengua eman genion. Ezkondata zegoen eta semeak zituen beste emakume batek, berriz, eskolara itzultzea erabaki zuen tailerretan parte hartu eta gero. Egun unibertsitatean da. Benetan ederrak diren aldaketa indibidualak ditugu! Baina indar hori guztia ezin dugu kolektibo bihurtu. Beldurrez ari- tzen gara. Gure asmoa ez da aldaketa indibidualak lortzea: aldaketak kolektiboa izan behar du.

Horretarako, administrazioaren egiturak aldatzea ezinbestekoa da. Eta alor horretan, noski, aurrerapausoak eskasagoak izango dira.

Bai, hala da. Gainera, ahalegin horretan oztopo diren gobernu- kanpoko erakundeak ere badira.



Argazkiak: Iñigo URIZ | ARGAZKI PRESS

Emakume palestinarrek modu oso bortitzean pairatzen dituzte okupazio sionistaren ondorioak eguneroko bizitzan.

Bai. Adibidez, ikerketa bat egin genuen etxeak suntsitu dizkieten emakumeekin eta lan bikoitza edo hirukoitza egin behar dutela ikusi genuen. Hasteko, familia lasaitu beharra dute. Janaria, garbiketa eta ikasketak bermatzearen ardura ere hartzen dute. Lan guztiak etxetik kanpo egin behar izaten dituzte, karpa batean edo alokaturiko etxe batean. Denbora bat horrela eman eta gero, laguntza beharrezkoa izaten den egoera psikologiko larri batean sartzen dira. Laguntza asko ematen dugu alor horretan.

Palestinako emakumeak ez dira soilik preso edo martiriaren ama, emaztea edo alaba. Hori beraien izaeraren zati bat baino ez da. Martiri edo preso baten emaztea ez bada ere, emakume palestinarra borrokaren partaide da. Emakumea ondo badago, borrokak aurrera egiten du. Emakumea bera preso edo zauritua ere izan daiteke. Borroka honetan emakume palestinarren garrantzia nabarmentzen denean kontuan izan behar da Palestinako askapena gauzatze-ko emakume palestinarren askapena ezinbestekoa dela. Ezin izango da Palestina askatu emakume palestinarrek askatzen ez badira. Ezin dugu itxaron Palestina askatu arte gure aldarrikapenak gauzatzeko. Ez gara inoiz herri bezala aske izango emakume palestinarra aske ez bada, emakume palestinarrek gune propioak eta eskubideak ez baditu. Lurraren eta gizakiaren askapena batera etorri behar dira.

Sirian egoera larria bizi dute uneotan. Horrek ere eragina izan du herrialde horretan dauden Palestinako errefuxiatuen artean.

Udaberri Arabiarra hasi zenetik, batez ere Siriako barne borroka hasi zenetik, Palestinak mundu mailako auzi nagusia izateari utzi dio. Baina, azkenaldian, Palestinako auzia Ekialde Hurbileko herri arabiarrentzat gai nagusi dela aldarrikatzen hasi da berriz ere. Herrialde arabia-



rretan dauden arazoak konpontzea, hori bai, errazagoa da okupazioa sionistarekin amaitzea baino. Uneotan herri akituak ditugu inguruan, baina beti izan dugu herri arabiarren sostengua, nahiz eta gobernu arabiarrek beste jarrera batzuk mantendu. Ez gaude bakarrik, inolaz ere. Herrialdeotako lagunekin elkartzen garenean gure eskarmentua dugu eskaintzeko. Nazioarteko konferentzietan edo tailerretan Palestinako emakume batek hitz egiten duenean, Siriakoek arretaz entzuten dute, pairatzen duten egoera hobeto ulertzeko baliagarria baitzaie. Antzeko zerbait

«Errefuxiatua izatea zer den ederki baino hobeto dakigu palestinarrok, eta gure eskarmentua errefuxiatu berriak laguntzeko baliatzen dugu»

gertatzen zaigu Irakeko emakumeekin. Halere, panarabismoa ahul dagoen sasoi batean gaude. Ez dut esango arabiar izateak egun ez duela esanahirik, baina iraganean zuen garrantzia baino gutxiago du orain. 50eko edo 60ko hamarkadetan ideia panarabista indartzen saiatu ziren. Orain gertatzen ari den guztiarekin arabiarren arteko harremanak indartzen ari gara. Emakume arabiarren elkarleen garrantzia hazi egin da. Zoritxarrez, badugu gure artean komunean dugun zerbait. Zoritxarrez, errefuxiatuez aritzen garenean, ez gara palestinarrez soilik ari. Hor ditugu Si-

riako errefuxiatuak ere. Palestinar ugari errefuxiatu siriarrak dauden guneetara joaten dira laguntza eskaintzeko. Ez dute laguntzen adituak direlako edo zerbait berezia dakitelako, errefuxiatuak izatea zer den ederki dakitelako laguntzen dute. Psikologoak, osasun mentaleko adituak, aktibistak ditugu errefuxiatu eremu horietan lanean, erakunde ugariaren babesarekin. Laguntza handia eman dezakete. Adibidez, nazioarteko konferentzia batean Jordaniako emakume batek Siriako emakumei eraso egin zien. Siriakoen alde atera zirenak Palestinako emakumeak izan ziren. Irakeko, Siriako eta Palestinako emakumeen artean elkartasun sare berriak sortzen hasi dira. Jakin badakigu gure egoera desberdina dela, ez dela gauza bera sionismoa eta herrialde arabiar ugartan gertatzen ari dena, baina ez gara inora helduko arabiarrok elkartzen ez bagara. Iritsi nahi dugun tokira heltzeko denbora beharko dugu, herri arabiarrek akituak baitaude.

Siriako egoerak bigarren mailan utzi du Palestinako gatazka nazioarteko komunikabideen agendan?

Bai, baina dugu hor ere Israeli boikot egitea defendatzen duen BDZ egitasmoa, erakunde eta enpresa ugari biltzen ari dena. Israelek jomugan du BDZ egitasmoa eta horrek bide onetik goazela esan nahi du. Min egiten dio Israeli. Gainera, beti izan gara bigarren mailakoak nazioarteko komunikabideentzat. Israeldar bat hiltzen dugunean berri nagusi gara. Gazan milaka palestinar hiltzen dituztenean berri txikia da. Hori ez da berria. Baina mundu mailan inoiz baino nazioarteko elkartasun handiagoa dugu orain. Gero eta nazioarteko talde gehiagok egiten dute Israelen kontra, Palestinaren aldeko erabakiak hartuz. Youtuben jarritako bideo bat edonork ikus dezake. Eta gurekin zer egiten duten erakusteko balio du horrek. Komunikazioaren teknologia berriek Palestinarekiko nazioarteko elkartasuna indartu dute.

JAPONIA

Fukushimako hondamendiari buruzko gezurrak agerian, bost urte geroago

INGURUMENA / joseangel.oria@gaur8.info

Japoniako Justizia Administrazioak TEPCO Tokyo Electric Power Company Fukushimako zentralaren jabetza duen enpresako zuzendaritzako hiru kideri leporatu die 2011ko martxoaren 11n hasitako istripu nuklearra saihesteko neurriak hartu ez izana. Auzitegira jo zuten herritar batzuek adineko 44 pertsonaren heriotza ere egotzi diete.

Lehen aldiz, Japoniako epaileek erabaki beharko dute akusatuak Fukushimako hondamendi nuklearraren arduradun ote diren. 15.000 hildako inguru eragin zituzten 2011ko lurrikarak eta ondorengo tsunamiak, eta une horretan hasi zen hondamendi nuklearrak eremu za-

balak hustea eragin zuen, herrialdeko 50etik gora erreaktore nuklearrak geldiarazteaz gain. Honako hauek dira epaileei esplikazioak eman behar dietenak: Tsunehisa Katsumata (75 urte, TEPCO konpainiako administrazio kontseiluko presidente zen 2011n), eta Sakae Muto (65 urte) eta Ichiro Takekuro (69 urte) enpresako presidenteordeak.

Akusazio partikularra aurkeztu zuten herritarren izenean Ruiko Mutok (erdian) hitz egin zuen joan den astelehenean.
Toshifumi KITAMURA | AFP

Gaia auzitegietara eraman zuten herritarrek zabarkeria profesionala eta adineko 44 japoniarren heriotza egotzi zieten hiru lagunei. Izan ere, pertsona horiek oso baldintza negargarritan eraman zituzten zentraletik gertu dagoen Futabako erietxetik, istripua gertatu ondoren.

Akusazio partikularra aurkeztu zuten herritarren izenean Ruiko Mutok hitz egin zuen joan den astelehenean. Bere ustez, harritzekoa da orain arte inork istripuaren erantzukizuna bere gain hartu ez izana. Katsumata, Muto eta Takekuro epaileek erruduntzat jotzea espero du.

Yuichi Kaido abokatuak esplikatu zuen Estatuak istripua gertatu aurretik eta ondoren egin dako kudeaketa bera ere kinkan ipintzekoa dela. Baita garai hartako Japoniako erakunde arautzaileak egindako lana ere.

Ofizialki Fukushimako istripuak eragindako erradioaktibi-





tateak ez zuen inor hil, baina agintariak onartu izan dute hondamendiaren ondorioz, ebakuazioa egin zen moduarengatik eta bizi baldintzak aldatu zaizkielako, eremu hartako ehunka lagun hil direla azken bost urteotan.

Epaiketa datorren urtera arte ez dela hasiko azaldu dute Japoniako hedabideek, dokumentu asko bildu eta aztertu beharko baitituzte epaileek.

TSUNAMI IKARAGARRIA

Edonola ere, japoniarrentzat oso urrats garrantzitsua da akusazioa, Hisayo Takada Greenpeaceko adituaren iritziz: «Prozedura judizialak erakutsi beharko du TEPCO konpainiaren eta Japoniako sistema arautzaileen porrot ikaragarria noraino iristen den. TEPCOk zein erakunde arautzaileak istripuaren arrazoiak ezagutzera eramango gaituzten xehetasunak ezkutatzen jarraitzen dute. Beren etxeetara itzultzerik ez duten ehunka milaka lagunak benetan gertatu zena ezagutzea merezi dute».

2011ko martxoaren 11n baieztatu zen aurreko urteetan egindako txostenek ziotena ez zirela teknikarien ateraldi hutsak.

Tsunehisa Katsumata (ezkerrean) TEPCO konpainiako administrazio kontseiluko presidentea zen 2011n, eta Sakae Muto (ezkerreko irudian, eskuinean) eta Ichiro Takekuro (eskuineko argazkia), enpresako presidenteordeak.
AFP

Agintariak onartu izan dute hondamendiaren ondorioz, ebakuazioa egin zen moduarengatik eta bizi baldintzak aldatu zaizkielako, eremu hartako ehunka lagun hil direla urteotan

Greenpeace talde ekologistako adituen arabera, «prozedura judizialak erakutsi beharko du TEPCOren eta Japoniako sistema arautzailearen porrot ikaragarria noraino iristen den»

TEPCOk berak 2008an egindako lan batean 16 metroko altuera izango lukeen tsunami baten hipotesia aztertu zuen. Hala ere, konpainiako zuzendaritzakoek esan zuten asko jota ere tsunamirik handienak 8 metroko altuera izango lukeela, eta, zentrala bera gorago dagoenez, ez zegoela arriskurik. Baina txostenek aurreikusten zuten tsunamia baino handiagoa iritsi zen zentralera, agintariak esandakoa hankaz gora botatzeko.

160.000 herritar ebakatu zituzten arrisku gehien zuten lekuetatik eta oraindik ere etxera itzuli ezinik (eta gogorik gabe) jarraitzen dute. Adituek diote hamarkadak beharko direla kutsadura garbitzeko, baina Shin-

zo Abe lehen ministro kontserbadoreak oso bestelako asmoak ditu: 2017. urtea bukatu aurretik kutsadura garbituta edukiko dutela dio, eta herritarrek etxera itzuli beharko dutela. Hortik aurrera, ebakutuei Estatuak ematen dizkien laguntzak bertan behera geldituko dira. Oso egitasmo polita, deskontaminazio lanek eremua berriz ez dela kutsatuko bermatuko balute.

Gainera, Raquel Monton Greenpeace talde ekologistako kideak nabarmendu duenez, «egitasmoak errepideak eta etxeen inguruak garbitzea baino ez du aurreikusten; zentral nuklearretako langileek jasaten duten erradiazio mailetara jaisteari 'garbiketa' esaten diote. Baina garbitutako eremuak berriz kutsa daitezke. Kontuan hartu behar da, gainera, bizilagunek ezingo dituztela zortzi ordu baino gehiago egin etxetik kanpo, erradiazio gehiegi pilatu nahi ez badute. Aukera hori baino ez diete uzten: hori edo batere ez».

Garbiketa lanek erabat aldatu dute Fukushima inguruko paisaia: lur kutsatuz betetako poltsa beltzak nonahi ikusten dira. Montonek esplikatu du erradioaktibitateak kutsatutako eremu

ARAZOAK
ZENTRALAK
LANEAN
JARTZEAN

Orain hamar egun jarri zuten berriz lanean Japoniako mendebaldean den Takahamako 4 erreaktorea, baina astelehenean gaintentsio arazo bat izan zuen eta gelditu egin behar izan zuten.

Japoniak 54 erreaktore nuklear zituen 2011ko martxoan, eta uneotan 43 geratzen zaizkio: Fukushima Daiichiko sei erreaktoreak eta beste bost ez daude lanean hasteko moduan. Hamabost zentraletako 25 erreaktore lanean hastea nahi dute jabeek (erakunde arautzaileak baimena ematean). Uneotan honako erreaktoreak daude lanean: Sendai 1, Sendai 2 eta Takahama 3.



bat pintatu berria den leku baten tankerakoa dela: dena dago pintatuta, lurra bera, landareak, harriak... Ukitzen dituzun gauza guztiek ikusten ez duzun pinturaz zikintzen zaituzte. Pixkana-ka hilko zaituen pintura.

Fukushima Daiichiko zentrala joan den otsailaren 22an, Greenpeace nazioarteko erakundearen «Rainbow Warrior III» itsasontzitik egindako argazkian.
Toshifumi KITAMURA | AFP

«HILOBIKO ISILTASUNA»

Abereak ere kaltetzen ditu erradiazioak. Smithsonian Institution erakundeak iazko apirilean egindako txosten baten arabera, Fukushima inguruko hegaztien kopuruak behera egin du eta bero gehien egiten duen lekuetan isiltasuna da nagusi, «hilobiko isiltasuna», Greenpeaceko kidearen hitzetan.

Naoto Kan zen Japoniako lehen ministroa 2011ko martxoan. Zentro-ezkerreko DPJ Alderdi Demokratikoko kidea Greenpeace erakundearen “Rainbow Warrior III” ontzian egon da egunotan: «Fukushimako istripua gertatu aurretik uste nuen Japoniako teknologia aurreratuari esker Txernobylgo gertaeren tankerakoak saihestuko genituela. Baina ez zen horrela gertatu eta arriskupean zeuden 50 milioi pertsonaren ebakuazioa eragin zezakeen krisi bati aurre egin behar izan genion. Horrek eragin zuen, zalantzarik gabe, nik neure iritzia goitik behera aldatzea», adierazi du.

«Ez daukagu horrenbesteko arriskurik hartu beharrik. Hobe da energia berriztagarriak gartztea, seguruagoak eta merkeagoak direnak; negozio egiteko aukera gehiago ere ematen dute», erantsi du.

ARRAINAK BESTELAKO ZAPOREA DU ORAIN

Satoshi Nakano arrantzaleari erabat aldatu zaio bizitza Fukushimako istripuaren eraginez. Bere sareek harrapatutako arrainek ez dute orain zapore bera, eta askotan arrantzatutakoa saltzerik ez du izaten. Azken bost urteotan zalantza une ugari izan ditu; beste une batzuetan gorrotoa, bihozmina eta etsipena nagusitu zaizkio. 2013ko azken hilabeteetan, istripua izan zenetik ia hiru urtera, arrantzara ateratzeko aukera itzuli zen, baina bestelako erritmo batekin, ez istripua izan aurretik egiten zuen moduan. «Estatuak ezarri duen araudiak ez digu teknikoki arrantzatzea debekatzen, zentraletik abiatu eta hurrengo hogeikilometrotan izan ezik, baina banaketa mugatzen du. Gakoa Fukushimako prefekturako arraina nola dagoen jakitea da», azaldu dio AFP agentziari Onahamako arrantzaleen sindikatuko arduradunak. Portua suntsitutako zentraletik 50en bat kilometrora dago.

Satoshi Nakano eta beste arrantzaleak astean bi aldiz itsasoratzen dira 70 arrain espezie aztertzeko. Ez dute harrapatutako guztia saltzen: Japoniako agintariak ezarritako erradioaktibitate mailaren (100 becquerel kiloko) laurden batera iristen ez diren arrainak bakarrik jartzen dituzte salgai. Baina Fukushimako arraina izateak urduritu egiten ditu kontsumitzaileak, izen hori erradioaktibitatearekin lotzen baitute, nahiz eta arrantzaleek zein agintariak herritarrak lasaitzen saiatu.

Estatuak esaten die herritarrei egoera menderatuta duela. Horretarako, TEPCO konpainia eta Japoniako erakunde arautzailea AIEA nazioarteko erakundearen protokoloaren arabera egindako neurketetan oinarritzen dira. Agintariak mendeen ikusten duten egoera erabat gaiztotuta ikusten dute beste batzuek, ordea. Shaun Burnie Greenpeace taldeko adituaren arabera, 2011ko martxoaren 11ko lurrikarak eta tsunamiak eragindako hondamendi nuklearrak askatu zituen elementu erradioaktiboen %80 inguru itsasora iritsi ziren.

Edonola ere, egoera ez da bera leku guztietan. «Kezkarik handiena zentraletik hurbil dagoen eremuak eragiten du, hor pilatu baita zesio erradioaktibo gehiena», esplikatu die kazetariei “Rainbow Warrior III” ontzian, Fukushimako itsasertzean. Nazioarteko talde ekologistak hondoaren laginak hartzen ditu zentralaren inguruko hamar lekutan. Japoniako bertako eta frantses Estatuko laborategi independenteetan analizatuko dituzte. «Han, hain gertu dagoen eremu hartan, gertatzen ari dena ulertu nahi dugu. Egia da arrantzaleak dagoeneko ez direla haraino joaten, baina beren ingurua eta beren bizitzak erabat kaltetu zituen hondamendiak», Burniek adierazi duenez.

Fukushimako itsasertzeko erradioaktibitatearen mapak egin ahal izateko urrunetik gidatutako itsaspeko bat erabiltzen du Greenpeacek. «Kutsatutako eremu batzuk oso txikiak dira, metro koadro batera iristen ez direnak, baina beste batzuen luzera ehunka metrotakoa da. Horregatik erradiazioak itsasoko espezie batzuk besteak baino gehiago kaltetu ditu», adituak esplikatu duenez.

«Informazio horiek garrantzia handikoak dira arrantzaleentzat. Izan ere, erabat seguruak diren eremuak ere badaude, eta, ondorioz, bertan arrantzatutakoa saltzeko modukoa baita. Baina beste eremu batzuetakoa kutsatuta dago. Gure lanak arazoa kokatuko du bere lekuan», erantsi du Jan Vande Puttek, arrantzaontzi batean laginak hartzen ari dela.

Baina ez dira hor amaitzen arazoak, ura ere kutsatuta baitago, eta Fukushimako erreaktore suntsituek ur kutsatua itsasora botatzen jarraitzen baitute. «Epe luzeko mehatxua da ingurumenarentzat», Burnieren ustez.

Satoshi Nakano arrantzaleak ez du itxaropena galdu, halere: «Gustatuko litzaidake herritarrek Fukushimako arrainen irudi hobea izatea; gure azterketa zehatzek arrain horiek merkatuko produkturik seguruenak bihurtu dituztela pentsatzea».



Saioa Aginako
Psikoterapeuta

Liburutegia

Zientziaren historia aztertzen denean, bereziki psikologiarena, emakumeak antzinatek bere garapenaren parte izan direla egiazta daiteke. Al-diz, emakumeen ekarpenak historialariek baztertuta geratu dira maiz, eta, beste askotan, emakumeon lana euren senarren izenen atzean ezkutatuta geratu da. Modu horretan, gizonak zientziari egindako ekarpenak iraun dute imajinario kolektiboan, eta, ondorioz, gizonak zientzia eraiki dutela sinestarazi nahi izan digute.

Gaur egun ez dira asko emakumeen izenak barneratzen dituzten psikologia eskuliburuak. Psikologiako fakultateetan, ikasleriaren gehiengoa emakumeak izanik, zergatik ez zaie emakume psikologoek ekarpen eta ereduak leku zabalagoa egiten? Mary Whiton Calkins edo Karen Horney izenak ezagunak egiten zaizkizue? Lehenengoa psikologia unibertsitatean ikasi zuen lehenengo emakumea izan zen, eta, bigarrena, emakume eta gizonen arteko ezberdintasunak biologikoak direla esaten zuen Freuden teoria zalan-tzan jarri zuena, ezberdintasunak jatorri kulturalak eta sozialak zituztela esanez.

Egoera hori bizi dugun errealitatearen zati izanik, gaurkoan osasun mentalararen esparruan ekarpenak egin dituzten eta gaur egun lanean diharduten emakumeak gonbidatu nahi ditut gurera. Horretarako, beraiek idatzitako zenbait liburu gomendatuko dizkizuet. Jarraian dituzue liburuok.

«Mujeres que corren con los lobos» Clarissa Pinkola Estes psikoanalistaren liburua da. Bere lana batez ere trauma osteko esparruan garatu du. Bere lanik ezagunena aipatutakoa izanik, hogeitazko ikerkuntza du atzetik. Bertan kultura arteko mito eta ipuinak bidelagun, emakumearen bizitzaren ikuspegi ezberdinak lantzen dira: maitasuna, boterea, familia... Oso lan gomendagarria dola batetik pasatzen ari diren emakumeentzat, baita osasuna berreskuratu nahi dutenentzat ere.

Hurrengo gomendioa, “El tesoro escondido” izenbu-

ruarekin dator. Bere egilea Violet Oaklander psikologoa dugu eta bere lana haur eta nerabeen esparru klinikoan garatu du, Gestalt terapia eta jolas terapia erabiliz. Liburuan bere lan egiteko era oso nabari ageri da; Gestalt adarreko hizkuntza erabiliz eta kasu klinikoek bitartez bere lan egiteko modua erakusten digu. Indargune bezala leihok ugari irekitzen ditu haur eta nerabeen mundura.

“La imaginación como fuerza curativa” Luise Reddemann alemaniarraren lana da. Psikoanalista eta neurologoa aldi berean, Bielefeld hiriko psikoterapia klinika zuzentzen du. Bere liburuan baliabide pertsonaletatik abiatuta trauma batek utzitako arrastoak nola landu kontatzen digu. Izenburuak aurreratzen duen lez, irudimena abiapuntutzat hartuta, arteterapia eta gorputz ariketak erabiltzen ditu bere terapia saioetan, teknika aurrendaria erabiliz. Batez ere terapia munduan interesa dutenentzat da gomendagarria.

Liburutegiarekin amaitzeko, Ana Maria Fernandez psikologo argentinararen «La mujer de la ilusión» lana proposatzen dut. Bere jardunbidearen zati handi bat generoaren gaia ardatz garatu du. «Genero femenino» bezala ezagutzen den terminoa zatitu egiten du, eta, hala, terminoaren subjektibotasunera eramaten gaitu. Genero hori nola besteei gustua emateko garatu den azaltzen du, norbere buroari ez ematearen kalterako. Gaia nahiko akademikoa izanik, hizkuntza hurbila eta ezaguna erabiltzen du, liburuak eramangarria eta irakurteraza eginez.

Aurkeztutako emakume izenak, hori baino gehiago dira: gizartea eraldatzeko ahaleginak egiten dituzten eta eragina duten profesionalak dira. Izan ere, izenak berreskuratzearekin ez da nahikoa: beharrezkoa dugu emakume aitzindarien historia bera ere berreskuratzea, igaro zituzten bazterketa egoerak eta aurre nola egin zieten ezagutzea. Horrela genealogia osatu ahal dugu, oraina ulertu eta iraganaz ikasi, psikologiaren berdintasunezko eraikuntza baterantz bidea eginez. •



Psikologia liburuetan normalean ez da emakumerik agertzen.

GAUR8

{ asteari zeharka begira } Iñaki Altuna

Nori hitz egin behar dio Otegik?

Arnaldo Otegik kartzelako ziega utzi du aste honetan eta etxean da. Ikusmin handia zegoen, baina ikusmin hori are eta handiagoa bilakatu da Otegiren hitzartzeekin. Biderkatu egin du efektu politikoa, eta hori ez da erraza, normalean espektatibak betetzea oso-oso zaila baita. Gainera, aspaldiko partez, euskal auzia aktualitatera eraman du, bai hemen bai kanpoko hedabideetan. Arretaren satelitea Euskal Herriaren gainean jartzea ahalbidetu zuen lehendabiziko hitzekin, eta Belodromorako jakin-mina handiagotu du.

Bi arazo izango ditu, ordea, Otegik, arazoak aukerak ere izaten badira ere. Lehena: oraindik goiz da Otegik bere ikuspuntu osoa azaltzeko, lurra hartu behar du. Hala ere, ezin da esan orain arte esandakoa diskurtso hutsala izan denik, eta ezin daiteke pentsatu gaur arratsaldean botako duena mamirik gabeko agurra izango denik. Askotan esan ohi da Otegi oso komunikatzaile ona dela. Zailtzarik ez. Sekulakoa. Baina bere indarra ez da soilik komunikatzeko duen gaitasunaren ondorio, hori bezain garrantzitsua baita irakurketarako politikoa egiteko eta estrategiak egituratzeko duen gaitasuna. Esate baterako, 2009ko ekainean Anaitasunaren eginiko hitzartzean, berez hauteskunde kanpainako mitin bat zena, estrategia berriaren oinarriak azaltzeko gai izan zen, mitin baten pasioa eta hitzaldi baten pedagogia uztartuta. Mamiz betetako mezua izan zen, zuzen-zuzenean milaka pertsonari iritsi zitzaiona, burura eta bihotzera.

Hori gutxi ez eta ondokoei eta ez hain ondokoei entzuteko gai ere bada Otegi, besteen iritziak metabolizatzeraino. Ez da asko ikusten den dohaina. Horregatik ere, rock talde bateko kideekin zein betiko militante historikoekin konektatzeko gai da.

[Oharra: orain artekoak analisisa izan nahi zuen, akaso panegiriko hutsaren traza hartu badu ere]

Arnaldo Otegik une honetan duen bigarren arazoa bere mezua hartzaile askori bidali behar izatea da, eta horretan orekari eustea ez da beti ariketa erraza izaten. Ezker abertzaleari hitz egin behar dio –horrela egin zuen hainbatetan Elgoibarren–, baina herritar guztiei ere hitz egin behar die. Ez da erraza asmatzea, oreka bilatzea,

etxe-etxe koentzat eta auzokoentzat ez baitira hitz eta gai berdinak erabiltzen.

ABIAN PROZESUAREN AMAIERAN

Ezker abertzaleari hitz egin behar dio, nahitaez, azken garaian krisian sartu baita. Hala agertzen du “Abian” txostenak krisi horren muina: «Egindako mugimenduaren [estrategia aldaketa eta haren gainean egindako urratsez ari da] inertziaren baitan surf eginez aski izanen genuela pentsatu genuen hasieran. Alta, gure oinetan agortu da olatua eta ez dugu ulertu mugimendu eraldatzaileak, olatuak baliatu baino gehiago, olatuak sortu behar dituela». Abian prozesua krisi hori gainditu eta estrategia aldaketari hauspo berria emateko jarri zuten martxan, eta, une honetan, ondorioetara iristeko unea denean, Otegi-ren hitzak onerako izan daitezke, ezker abertzalearen oinarri soziala berpiztea lortu baitu elgoibartarrak. Ume-

Askotan esan ohi da Otegi oso komunikatzaile ona dela, baina bere indarra ez da soilik horren ondorio, hori bezain garrantzitsua baita duen gaitasun politikoa eta estrategikoa

keria litzateke “Otegi efektuak” dena konponduko duela pentsatzea, baina orain dela hilabete batzuk baino errazago izango dute mugimendu horrek behar duen eraldaketa burutzea –birsortzea, aipatu txostenaren hitzetan–, horretako ausart aritzea.

Halere, ezker abertzaleak eta harekin bat egiten duten militanteek ezin dute Otegi kartzelatik irtenda sortutako giroa soilik barrura begira ulertu. Erronka ez da etxekoak asebetetzea. Helburua, edozein mugimendu politiko iraultzaileentzat, prozesu politikoan aurrera egitea da, proiektu politikoa errealtate bihurtzeko bidean. Otegi-ren hitzetan, irabaztea. Eta horretarako, Euskal Herrian berpiztu nahi duen prozesu politikoaren berme eta indar bakarra herria izanik, hari hitz egin behar dio ezker abertzaleak eta, oro har, ezkerreko subiranismoak. Zorionez, orain Arnaldo Otegi izango du lan horretarako. •

DENBORAREN ERABILERA

Etxeko lanak eta zaintza, parekidetasuna neurtzeko termometroa

📁 JENDARTEA / amagoia.mujika@gaur8.info

Genero identitatea etengabe eraikitzen eta deseraikitzen den zerbait da; pertsonen arteko harreman moduekin, jarrerekin eta jokaerekin. Genero-rolen sustraiak oso luzeak eta sendoak dira, gure baitara sendo lotuak daudelako. Eguneroko jardunean denbora banatzeko eta erabiltzeko moduetan ere igartzen da hori, Eustatek oraintsu mahai gainean jarri duen ikerketa batek datu zehatzekin kontatzen duenez.

Eustat Euskal Estatistika Erakundeak duela aste batzuk egin du publiko “Bi hamarkadako gizarte-aldaketa Euskal AEn denboraren erabileraren bitartez. Denbora Aurrekontuen Inkesta, 1993-2013” izeneko ikerketa. Bertan datuen gainean jasotzen du azken hogeitun urteotan nola aldatu den denboraren era-

bilera egunerokoan. Ikerketaren baitan kapitulu propioa eman diote “Generoa eta denboraren erabilera” gaiari, hain zuzen ere Marina Sagastizabal eta Marta Luxan soziologoaren gidaritzapean. Izan ere, gizonezkoek eta emakumezkoek desberdin banatzen eta erabiltzen dute denbora, horretan ere genero rolen garroak uste baino sakonago sartuta baitaude.

Azken hogeitun urteotan emakumea bete-betean sartu da lan merkatuan. Gizonezkoa gero eta gehiago inplikatzeko da etxeko lanetan, baina oraindik emakumea baino askoz gutxiago. THINKSTOCK

Etxeko eremua eta zaintza esparru oso esanguratsuak dira genero eraikuntza edo deseraikuntza aztertzeko. Hartara, azken hogeitun urteotan ikusi da aldaketarik, nahiz eta ez diren izan desberdintasunak erabat desagertzeko adinakak.

Kapitulu horren egileen arabera, genero identitatea gure eguneroko interakzioetan eta ekintzetan eraiki edo deseraiki daitekeen eraikuntza kulturala da. Hartara, beti gaude «generoa egiten», gure portaera orok generoaz hitz egiten baitu. Etxeko lanen eta zaintzaren eremua genero eraikuntzarako esparru pribilegiatua dela ulertzen dute Sagastizabalek eta Luxanek, «emakumeak eremu honetan gehiago inplikatzeko eta gizonak gutxiago bata eta besteari asignatutako generoen ‘esentziarekin’ bat datorrelako». Beraz,

denboraren erabilera ereduek generoa «egitearen» edo «desegitearen» inguruko pista ematen dituztela ulertuta, pista horien atzetik osatu dute txostena.

PAREKIDETASUNAREN TERMOMETROA

Etxeko lanena generoaren eraikuntzaren muinean kokatzen den gaia da zenbait autoreren ustez, eta bikotekideen arteko parekidetasuna neurtzeko oso baliagarria dela nabarmentzen dute. «Bikotearen funtzionamendurako termometro bat da, eta, era berean, bikotearen parekidetasuna ezartzen du. Hau da, etxeko lanen eta zaintza lanen esparruan erabakitzen, konfiguratzeko eta gauzatzen da, hein handi batean, bikote harremanen erudia. Lanon banaketa eta antolaketari begiratzeak genero harremanak nolakoak izango diren ulertzen laguntzen du», jaso dute ikerlariak egindako lanean. 1993tik 2013ra bitartean aldaketarik nabariena jaso dituen jarduerak da etxeko lanena. Aldeak txikitu egin dira, baina oraindik handiak dira, bai kopuruan eta baita nolakotasunean ere.

Etxeko lanen esparruan, ohiko eta ezohiko jarduerak banatzen ditu Eustaten inkestak. Ohiko lanetan sartzen ditu jana, barruko etxeko lanak (garbiketa) eta jantziak eta etxeko arropak. Ezohikoetan, berriz, bestelako konponketak, erosketak, kudeaketak eta erdi-aisiak, haurrekin parkera joatea kasu.

«Emakumei erreparatu gero, nahiz eta jarduerak mota biei eskainitako denbora murrizten den, ohiko etxeko jardueretik lotura ezohiko jardueretik baino intentsuagoa da aztertutako epealdian zehar: 1993an ohiko jarduerari lotuta 3 ordu eta 15 minutu pasatzen zituzten emakumeek eta ezohikoari ordu bate; 2013an, aldiz, 2 ordu eta 25 minutuko eta 44 minutuko dedikazioak zituzte. Gizonen portaerak kontrako bilakaera izan du, hau da, gero eta denbora gehiago eskaintzen diete orokorrean etxeko lanei eta, gainera, 2008tik aurrera ohiko jarduerari ezohikoari baino denbora gehia-



«Etxeko lanen eta zaintzaren banaketa bikotearen funtzionamendurako termometro bat da, eta, era berean, bikotearen parekidetasuna ezartzen du»

«Murriztu arren, oraindik aldeak daude; 1993an gizonek baino lau aldiz denbora gehiago ematen zuten emakumeek etxeko lanetan; eta 2013an, ordea, denbora-kopuru bikoitza»

go eskaintzen diete. Baina aldaketak aldaketa, egun emakumeek ohiko jardueri eskaintzen dieten denbora gizonezkoek de-dikatzen diotena bider 2,6 dugu, hots, batere parekidea ez den banaketa baten aurrean gaude oraindik». Zenbait autorek nabarmentzen dutenez, «garrantzitsua da eginkizunen tempoa haien eduki eta balore sozialarekin lotuta dagoela azpimarraztea». Beraz, etxeko lanak banatzeko moduak zer pentsa eman beharko liguke.

LAN ORDAINDUA ETA EZ ORDAINDUA

«DAIko (Denboraren Aurrekontu Inkesta) datuak genero-ikusegitik aztertzen badira, oro har, hautematen da aztertutako aldian aurrerapen nabarmenak egin direla emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko helburuan. Hala ere, generoaren arabera ohiko rolek jarraitu egiten dute herritarrek denbora egunero erabiltzen eta banatzen duten moduetan. Lanaren sexu-banaketak oraindik ere baldintzatu egiten du emakumeek eta gizonek beren denbora kudeatzeko duten modua», dio txostenak.

Datuetara etorruta, emakumeek duela hogeitau urte baino denbora gehiago ematen dute orain lan-merkatuan, eta denbora gutxiago etxeko lanetan eta zaintza lanetan. Gizonek, berriz, denbora gutxiago ematen dute lan ordainduan (krisiak ere izan du parte honetan) eta denbora gehiago etxeko eta familiako lanetan.

Aldaketa horiek eman dira, nahiz eta zenbakiak erakutsi oraindik parekidetasuna urrun dagoela. Hogeitau urteko joanean, emakumeek 34 minutu gehiago eman dute lan ordainduan; eta ordubete eta 18 minutu gutxiago etxeko eta zaintza lanetan. Gizonek, berriz, 59 minutu gutxiago lan ordainduan eta 18

minutu gehiago etxeko eta familiako lanetan.

ZAINTZAN, ALDAKETA LAUSOAGOA


Genero-haustura txikiagotu egin da lan ordainduan eta etxeko eta zaintza lanetan, baina oraindik desberdintasunen gainean eraikitzen da denboraren banaketa. 1993an gizonek baino lau aldiz denbora gehiago ematen zuten emakumeek etxeko lanetan; eta 2013an, ordea, denbora-kopuru bikoitza.

Etxeko pertsonak zaintzeari dagokionez, aldaketa dezente mantsoagoa eta lausoagoa da. 1998an txikiagotu egin zen genero-haustura, baina, 2003tik aurrera, handitu. Eta ikerlariak nabarmendu dutenez, zaintzaren zama oraindik ere emakumearen gainean erortzen da nagusiki. Eremu horretan, beraz, parekidetasunerako pausoak ez dira hain sendoak izan.

Lan ordainduari dagokionez, sendoxeagoak izan dira urratsak; 1993. urtean gizonek ematen zuten denboraren erdia ematen zuten emakumeek lan ordainduan. Hogeitau urteren buruan, aldea ez da heren batera iristen.

ERABATEKO LAN ZAMA

Erabateko Lan Zama izan da aztertutako beste adierazle bat; lan ordaindua, ordaindu gabea, etxeko eta familiako lanak eta borondatezko lanak bere baitan hartzen dituenak. Datu osatu hori kontuan hartuta, ikusten da emakumeek gizonek baino lan zama handiagoa hartzen dutela. Hala zen 1993. urtean eta hala izaten segitzen du, nahiz eta aldeak murriztu egin diren. Zehazki: 1993an, emakumeek 6 ordu eta 13 minutu hartzen zuten beren gain, eta gizonek 5 ordu eta 6 minutu (beraz, emakumeek ordubete eta 7 minutu gehiago); 2013an, emakumeek 5 ordu eta 39 minutu hartzen zuten be-



Zaintzaren esparrua artean oso lotuta dago emakumearekin. Hogeitau urtean aldaketa gutxi izan da arlo horretan. THINKSTOCK

ren gain, eta gizonek 4 ordu eta 48 minutu (beraz, emakumeak 51 minutu gehiago).

NORK BERE BURUA ZAINITZEA

Nork bere burua zaintzeko gordetzen duen denborari dagokionez, gizonaek baino denbora gutxiago hartzen dute emakumeek, ikasketa maila eta adina alde batera utzita. Dena den, nabarmentzekoa da honako aldaketa hau: 1993an emakumeen ikasketa maila zenbat eta handiagoa izan, orduan eta denbora propio gehiago hartzen zuten; azken urteotan, aldiz, bai emakumeen bai gizonen kasuan, ikasketa maila zenbat eta handiagoa izan, orduan eta denbora propio gutxiago hartzen dute.

Adinari dagokionez, txostenak jasotzen duenez, «35 eta 59 urte bitarteko emakumeek egindako lanordu bakoitzeko ordu erdi baino gutxiago hartu dute erabilera askeko denbora gisa, beharbada, lan merkatuan parte hartze handiagoa izan arren, etxeko eta familiako lanak ere gain hartzen jarraitu dutelako. Egoera horrek ondorioak izaten ditu eguneroko bizitzaren beste arlo batzuetan, hala nola, gizarte bizitzan, aisian edo joan-etorrietan».

GIZARTE BIZITZAN DENBORA GUTXIAGO

Orokorrean euskal herritarrek gero eta denbora gutxiago eskaintzen diote gizarte bizitzari, berdin emakumeek zein gizonen. Baina batzuek eta besteek parte hartze soziopolitikoan eta borondatezko lanetan hartzen dituzten jarreretan igartzen da genero-rolen araberako banaketa. Gizonen parte hartze handiagoa dute erakundeetan, onginali hutsezko jardueretan eta lanetan; eta emakumeen parte hartzea handiagoa da erakundeen bitartezko onginali hutseko lanetan.

«Gizonen onginali hutsez egiten dituzten jarduerak, besteak beste, honako hauek dira: alderdi politikoetako kide izatea, sindikatuetako kide izatea, mitinetan parte hartzea, eta abar; bai eta enpresako eta beste erakunde batzuetako kontseiluetan parte hartzea ere. Bestalde, era-



kundeetan egiten duten lana kudeaketarekin lotuta dago (kudeaketa lana, adibidez). Bestalde, emakumeek onginali hutsez egiten duten lana erakundeen bitartezkoa da, eta asistentziarekin lotuta dago. Hein handi batean, beste pertsona batzuek arduratzen dira, eta pertsona horiek zaintzen dituzte; beraz, lan horrek lotura handiagoa du emakumeei esleitu ohi zaien zaintzaile-rolarekin».

AISIALDI AKTIBOAK GORA EGIN DU

Aisialdiari dagokionez, inkestak agertu du bai emakumeek bai gizonen handitu egin dutela aisialdi aktiboari eskainitako denbora; batez ere informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilerarekin lotutako denborak egin du gora (gizonen gehiago erabiltzen dituzte).

Aisialdi pasiboari dagokionez, emakumeen tasa handitu egin da, eta gizonena txikiagotu. Joan-etorrietan denbora gehiago ematen dute emakumeek eta gizonen. Hala ere, adinari erreparatzen badiogu, oraindik ere desberdintasunak daude, eta adindun emakume-

Etxeko lanen muina, ohiko jarduerena –jana, arropa, garbiketa–, oraindik emakumearen gain dago nagusiki. Ezohiko jardueratan –erosketak egin, haurrak zaindu parkean– gizonaren parte hartzea gero eta handiagoa da.
THINKSTOCK

ak dira joan-etorrietan denbora gutxien ematen dutenak.

DESERAIKUNTZA TXIKIA

Datuei begira autoreek nabarmendu dutenez, «gizonen inplikazioaren handitzea etxeko eremuan nolabait euren maskulinitatearen deseraikuntza baten seinale izan daitekeela koan gaude, nahiz eta deseraikuntza hori oraindik txikia izan. Aldiz, gizonen artean gauzatutako joera aldaketa horrek ez du emakumeengan eragin handirik izan, Etxeko Lanaren Nolakotasun Indizeak erakutsi duen moduan, emakumeen artean ohiko etxeko jardueren

karga gizonaen artean baino askoz ere handiagoa baita. Horrenbestez, esan genezake genero deseraikuntzarako joera lausoa dela oso eta ezberdina generoaren arabera, hau da, maskulinitatean gertatzen ari diren balizko aldaketak ez dira feminitatearen eraikuntzan eragin handirik izaten ari. Laburbilduz, 1993tik 2013ra Euskal Autonomia Erkidegoan, beste toki askotan bezala, emakumeek nabarmen handitu dute euren parte hartzea lan merkatuan eta gizonen, nahiz eta etxeko eremuan gehiago inplikatu, esan genezake ez dutela neurri berdinean egin».

«35 eta 59 urte bitarteko emakumeek lanordu bakoitzeko ordu erdi baino gutxiago hartzen dute erabilera askeko, lan merkatuko zama eta etxekoa beren gain hartzen dituztelako»

«Etxeko eremuan gizonen inplikazioa handitzea euren maskulinitatearen deseraikuntza baten seinale izan daiteke, nahiz eta deseraikuntza hori oraindik txikia izan»

ISABEL OTXOA

ETXEKO LANGILEEN ELKARTEKO BOZERAMAILEA ETA EHU-KO IRAKASLEA

«Kasuen %80an etxeko langilea bakarrik bizi da zaintzen duen pertsonarekin, egun askotan beste inorekin ardura partekatu gabe»



Monika DEL VALLE | ARGAZKI PRESS

Eustatek 1993tik 2013ra urtera bitartean denboraren erabilera nola eta zertan aldatu den ikertu du. Bistan geratu denez, hogeitortan orokorrean gutxitu egin da herritarrek etxeko lanetara eta zaintzara bideratzen duten denbora, bai lan batzuk egiteari utzi dietelako eta baita lan horiek maiz esternalizatuak izan direlako ere. Alegia, etxe askotan beste pertsona bat kontratatzen da etxeko lanak eta zaintza lanak egin ditzan. Baina, zein baldintzatan egiten da hori?

Etxeko Langileen Elkarteak urtero ematen du argitara etxeko langileen egoera erakusten duen txostena. Bertako bozeramailea den Isabel Otxoak nabarmendu dizkigu 2015. urteko datuen argi-itzalak. «Onerako aldaketa batzuk daude, asteburuko legezko atsedena izaten duten barneko langileen kopurua igo egin da; asteen 24 orduko atsedena baino gutxiago dutenak gutxitu egin dira; soldata gero eta gehiago bankutik ordaintzen ari da barneko langileen kasuan eta Gizarte

Segurantzaren izena emanda dauden kopurua igo egin da iaiztik», hasi da argiak nabarmentzen.

Baina, alderdi ilunagoak ere jaso ditu txostenak, «barneko langileen ia %79k asteen 60 ordu baino gehiago lan egiten dituzte; heren batek ez dute inoiz egun libre oso bat izaten; % 85ek ez dute dagokien soldata jasotzen eta soldata dokumentatu gabe jasotzen duten eguneko langileen kopurua igo egin da», segitu du Isabel Otxoak.

BERTAN JAIO TAKO GEHIENAK, ORDUKA LANEAN

Etxeko langileak duela hiru urte hasi ziren legeak derrigortuta Gizarte Segurantzaren kotizatzen eta panorama hobetu egin da, nahiz eta artean badauden konpondu beharreko egoera korapilatsuak. «Gure datuek diote barneko langileen artean gero eta gutxiago direla Gizarte Segurantzari gabe ari direnak. Hala gertatzen denean maiz paperik gabe daudelako izaten da. Familia batzuek hori baliatzen dute lan baldintza bidegabeak inposatzeko; langileari sinestaz diote paperak lortzen lagunduko diotela lan kontratu formalak eskainita, baina batzuetan garaia heltzen denean ez dute agindutakoa betetzen. Eguneko langileen artean, Gizarte Segurantzaren izena emanda dauden portzentajea igo egin da eta hori 2012ko lege aldaketarekin dago lotuta. Hala ere, oraindik orain askok murgildutako ekonomian jarraitzen dute; haien artean gehiengoaren hiru laurak emakumeak dira. Ez dugu ahaztu behar migratzaileak ez diren artean % 83 ordukako lanetan ari dela», agertu du.

Etxeko lanetan ari diren artean, barneko langileen gehiengo zabala migratzailea da, familia kanpoan duena. «Baina badira hemen familia duten pertsona migratzaileak, familia asteburuetan bakarrik ikusten dutenak». Lakuaren 2011ko maiatzeko ikerketa

baten arabera, egunez aritzen diren etxeko langileen bi herenak bertan jaio tako emakumeak dira. «Esango nuke etxeko langileen artean haiek ikustezinenak direla. Krisia dela eta hemengo emakume askok ordukako etxeko enplegura jo dute», gaineratu du.

Atsedena izateko eskubidea ere maiz urratzen dela salatu dute elkartetik. «Asteburuei begira, barneko langileen %23k ez dute izaten asteen inongo atsedunik eta %27k ez dute 24 ordu jarraiko atsedunik izaten. Eguneko atsedinari begira, %33k ez dute inongo atsedunik izaten. Gauen egoerak, gainera, iruzkin berezia merezi du, asko direlako egunez eta gauez lan egitera behartuta daudenak, gaixo dauden pertsonak zaintzen dituztenak kasu».

Egiten dituzten lanei erreparatuta, eguneko langileen %30 etxeen garbiketan aritzen dira eta, gainontzekoak, haurrak eta adinekoak zaintzen. Barneko langileen kasuan, %91k adineko pertsonak zaintzen ditu, horietako asko mendekotasun egoera larrian daudenak.

2015. urteak utzitako datuak mahai gainean jarrita, Etxeko Langileen Elkarteak garbi dauka zeintzuk diren aurrera begirako erronketako batzuk; «erronka nagusia gobernuaren parte hartzea da. Jaurlaritzak dituen eskuduntzen barruan Lan Ikuskaritza, Lanbide, Osakidetza eta Osalan daude. Lan Ikuskaritzak egoera tamalgarri asko kontrolatu beharko lituzke, baina aurkezten zaizkion salaketei ez die jaramon handiegirik egiten. Lanbidek ez ditu oraindik Parlamentuko ebazpenak bete, alegia, ez du ezer egin etxeko enpleguan bitartekari eraginkorra eta nagusia izateko. Osakidetza ez du bermatzen etxeko langileen lan istripuak istripuztat hartzea eta ez gaixotasun arrunt gisa (gaur egun gertatzen den moduan). Osalanen erantzunaren zain gaude, beraiekin birritan bildu gara etxeko langileen lan osasun baldintzak bermatzeko neurriak har ditzaten. Esan bezala, mendekotasun egoeran dauden pertsonen zaintzan ari dira, inongo lan arriskuen prebentzio neurririk gabe. Handik datoz sorbalda, beso eta eskuetako lesioak, eta baita lesio psikikoak ere. Azken horiek atsedunik gabeko jardueratik eratortzen dira; kontuan hartu behar da kasuen %80an etxeko langilea bakarrik bizi dela zaintzen duen pertsonarekin, egunean zehar askotan beste inorekin ardura partekatu gabe», nabarmendu du Isabel Otxoak.

MARINA SAGASTIZABAL

SOZIOLOGOA ETA IKERLARIA

«Emakumeak gizonaren rola hartu du lan merkatuan, baina gizonak ez du bere egin emakumearena zaintzan eta etxeko lanetan»

Nola banatzen dugu eguneko denbora? Gizonezkoek eta emakumezkoek denboraren erabilera paretsua egiten al dugu? Eustatek duela aste batzuk argitaratu du ikerketa monografiko bat denboraren erabileraren inguruan. 1993tik 2013ra bitarteko urteak zorrotz aztertu dituzte datuetan oinarrituta, eta, hala, hogeituro urteko tartean denboraren erabileran izan diren aldaketak jaso ahal izan dituzte. Marina Sagastizabal eta Marta Luxan soziologoak arduratu dira “Generoa eta denboraren erabilera” izenburua duen kapituluaz. «Ikerketa transbertsal bat egin dugu generoaren ikuspuntutik eta gizonak eta emakumeek denbora nola banatzen eta erabiltzen duten ikertu dugu», agertu du Sagastizabalek.

Hogeituro urteko argazki osatua ateratzen duzue gizonak eta emakumeek denbora nola banatzen duten ikertzeko. Zein da ondorio orokorra? Genero desberdintasuna gehien eta modu nabarmenean ikusten den esparrua etxeko lanak eta zaintza dira. Alor horretan gauzak aldatu egin dira azken hogeituro urteotan. 1993. urtean desberdintasunak ikaragarriak ziren. Pixkanaka-pixkanaka desberdintasun horiek txikituz joan dira, baina, hala ere, gaur egun oso nabariak dira oraindik. Desberdintasunak gutxitzeko tendentzia ikusten da, baina oraindik oso nabariak izaten segitzen dute. Aldaketa azalekoa da, ez dakigu benetan zer-nolako sakontasuna duen.

Datuak ikusita emakumea azken hogeituro urteotan bete-betean sartu da lan ordainduaren esparruan. Baina gizona ez da neurri berdinean sartu lan ez ordainduaren esparruan. Hogeituro urte horietan tendentzia gero eta nabariagoa izan da emakumea lan

merkatuan sartzeko, baina, aldiz, ez dago tendentzia hain markatua gizonak etxeko eremuan gehiago inplikatzeko. Emakumeak gizonaren rola hartu du lan merkatuan sartuta, baina gizonak ez du bere egin emakumearen rola zaintzan eta etxeko lanetan. Beste ikerketa zenbaitetan ere nabarmendu da genero iraultzak geldialdi bat izan duela, aldaketa bakarrik emakumeengan gertatzen delako, ez gizonengan.

Lan merkatuan paretsu samarrean eta, etxean, emakumeak gizonak baino gehiago oraindik, beraz. Tendentzia orokorra hori da eta baditu ñabardura interesgarriak. Etxeko lanen eta zaintzaren eremua emakumeak bere gain hartzen segitzen du nagusiki, lan horiek ez ditu banatzen. Egia da etxeko eremuan gero eta gutxiago egiten duela emakumeak, baina ez hainbeste gizonak gehiago egiten duelako, etxeko lan batzuk egiteari utzi diogulako baizik. Gure amek eta amonek egiten zituzten etxeko lan batzuk guk ez ditugu egiten, eta beste kasu askotan lan horiek merkantilizatu egiten dira.

Etxeko lanen jarduna aldatu egin da, beraz? Etxeko lanak bi multzotan banatzen ditugu: ohiko etxeko jarduerak eta ezohiko etxeko jarduerak. Ohikoetan sartzen da elikaduraz arduratzea, arropaz arduratzea, etxeko garbiketa egitea... 1993. urtean emakumeek batez beste hiru ordu eta hamabost minutu egiten zituzten egunean lan horietan. Gaur egun, berriz, bi ordu eta hogeita bost minutu. Aldea dago, orokorrean gutxiago egiten da.

Garai batean emakumeak etxeko lanetan zeukan profesionalizazio maila jaitsi egin dela uler dezakegu. Gure

amamek mahai-zapiak eta kuleroak eta guzti plantxatzen zituzten, adibidez. Badirudi gaur egun gauza batzuk ja ez direla egiten. Eta, horrez gain, aztertu beharko litzateke zenbait maila sozialetan noraino merkantilizatzen diren lan horiek. Alegia, beste pertsona bat –emakumea gehien-gehienetan– kontratatzen da lan horiek egin ditzan. Baina, orokorrean, esan dezakegu emakumeak duela hogeituro urte baino denbora gutxiago ematen duela etxeko lanetan lan batzuk egiteari utzi diolako, ez lan horiek gizonak egiten dituelako.

1993 eta 2013 bitartean eman da aldaketarik gizonen inplikazio mailan? Gaur egun orduan baino gizon gehiago daude etxeko lanetan parte hartzen dutenak. Portzentajeak aldatu dira, ez orain gizonak lehen baino denbora gehiago ematen dutelako etxeko lanetan, orain orduan baino gizon kopuru handiagoak parte hartzen duelako baizik. Ez dute gehiago egiten: gizon gehiagok egiten dute. Baina, hala eta guztiz ere, gizonak emakumeek baino askoz denbora gutxiago eskaintzen diete etxeko lanei oraindik. Eta, gainera, nagusiki ezohiko jardueretan parte hartzen dute; erosketak egitea, umeak parkean zaintzea, etxeko konponketak...

Haurren zaintzan igo egin da gizonen parte hartzea, baina emakumeak zaintzari erabat lotuta segitzen du. Datuek hori diote. Hogeituro urtean etxeko lanei eskaintzen zaien denbora gutxitu egin da, baina zaintzari eskaintzen zaiona mantendu. Horregatik esaten dugu zaintzak feminitatearen eraikuntzan eremu klabe bat izaten segitzen duela gaur egun, eta akaso





Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS

deseraikuntza maskulinitatean gertatzen ari dela batez ere, etxeko lanetan eta zaintzan gehiago inplikatzten ari direlako gizonak, baina oraindik emakumeak baino askoz gutxiago.

Ikerketan Feminizazio Indizea kalkulatu dugu, emakumeen kokapen erlatiboa gizonekiko. Hogei urtean etxeko lanen Feminizazio Indizea jaitسي egin da, baina zaintzarena mantendu. Emakumeak oraindik oso barneratuta dauka zaintza.

Ikerketak mahai gainean jarri duenez Erabateko Lan Zamaren indizeak balio altuagoak ematen ditu emakumeen kasuan, adin guztietan gainera.

Maneiatzen dugun beste adierazle bat da Erabateko Lan Zama. Ez dugu ulertzen lan zama lan merkatuan bakarrik egiten dena denik, harago doala ulertzen dugu. Indize horretan lan ordaindua, etxeko eta zaintza lanak eta boluntario lanak sartzen ditugu.

Erabateko Lan Zama handiagoa da emakumeen artean gizon artean baino, adin guztietan gainera. Gazteetan ere, emakumeek gizonek baino lan gehiago egiten dute orotara. Gazteek erakusten duten tendentzia nabarmentzeko modukoa da, ez baitira berdinzalegoak. Erabateko Lan Zama aztertzerakoan gazteen arteko ezberdintasunak edo parekidetasun eza handitu egin dela ikusi dugu: nesken Erabateko Lan Zama handitu den bitartean, mutilena jaitسي egin baita. Indize horrek garbi uzten du ez dagoela lan banaketa orekaturik, ezta belaunaldi gazteenen artean ere.

Ze aho zapore uzten du ikerketak?

Gauza oso berririk ez dugu topatu. Jendartearen tendentzia orokor bat ematen digu, baina ikusten dena da desberdintasunak mantendu egiten direla, nahiz eta denboran zehar txikitzen joan. Gaur egun oraindik desberdintasun oso nabariak daude gizonen eta emakumeen artean, batez ere etxeko lanen eta zaintzaren eremuari erreparatuz gero.

Etxeko Nolakotasun Indizeak etxeko ohiko jarduerak eta ezohiko jarduerak hartzen ditu kontuan. Ohiko jardueretan, etxeko lanen nukleo gogorra dena, emakumeek gizonen ia hirukoitza egiten dute. Duela hogeï urte zazpi aldiz gehiago egiten zuen emakumeak, eta, gaur egun, kasik hiru aldiz gehiago. Aurreratu da, baina oraindik desberdintasunak oso

Bataz besteko gizarte-denbora etxeko lan-mota eta sexuaren arabera

Emakumeak	1993	1998	2003	2008	2013
Ohiko etxeko jarduerak	3h 15'	2h 45'	2h 38'	2h 39'	2h 25'
Ez ohiko etxeko jarduerak	1h 00'	0h 52'	0h 53'	0h 47'	0h 44'
Gizonak	1993	1998	2003	2008	2013
Ohiko etxeko jarduerak	0h 26'	0h 33'	0h 30'	0h 44'	0h 56'
Ez ohiko etxeko jarduerak	0h 33'	0h 35'	0h 39'	0h 34'	0h 41'


Iturria: Geuk egina, Denbora Aurrekontuen Inkestan oinarrituta (Eustat) GARA

Bataz besteko gizarte-denbora jarduera-multzo handietan, sexuaren arabera

	1993		1998		2003		2008		2013	
	Gizona	Emakumea	Gizona	Emakumea	Gizona	Emakumea	Gizona	Emakumea	Gizona	Emakumea
Behar fisiologikoak	11h 24'	11h 27'	11h 03'	11h 37'	11h 51'	11h 48'	11h 43'	11h 38'	11h 53'	11h 59'
Lan ordaindua eta prestakuntza	4h 15'	2h 04'	4h 16'	2h 26'	4h 14'	2h 35'	4h 00'	2h 49'	3h 16'	2h 22'
Etxeko lanak	1h 03'	4h 16'	1h 10'	3h 37'	1h 10'	3h 31'	1h 19'	3h 25'	1h 37'	3h 08'
Etxeko pertsonen zaintza	0h 12'	0h 27'	0h 14'	0h 26'	0h 12'	0h 29'	0h 19'	0h 36'	0h 21'	0h 36'
Gizarte-bizitza	1h 16'	1h 04'	1h 08'	0h 58'	1h 04'	0h 52'	0h 41'	0h 36'	0h 45'	0h 44'
Aisia aktiboa eta kirolak	1h 22'	0h 58'	1h 23'	1h 02'	1h 27'	1h 08'	1h 38'	1h 05'	1h 47'	1h 11'
Aisia pasiboa	3h 22'	2h 49'	3h 03'	2h 45'	2h 46'	2h 33'	3h 10'	2h 48'	3h 05'	2h 52'
Joan-etorriak	1h 03'	0h 52'	1h 15'	1h 05'	1h 14'	1h 03'	1h 09'	1h 03'	1h 18'	1h 08'

Iturria: Geuk egina, Eustatatan Denbora Aurrekontuen Inkestan (1993-2013) jasotako datuak oinarri hartuta GARA

Erabateko lan zama sexuaren arabera. 16 urte eta gehiagoko populazioa



Iturria: Geuk egina, Denbora Aurrekontuen Inkestan oinarritua (Eustat) GARA

handiak dira. 1993. urtean desberdintasunak ikaragarriak ziren, eta, gaur egun, oso handiak. Nondik gatozen kontuan izan behar dugu, eta nora iritsi nahi dugun erabaki. Berdintasunera iritsi nahi badugu, oraindik asko dago egiteko. Bidean goaz, baina astiro-astiro, ikusi egin behar gizonen tendentzia hori luzera begira mantentzen ote den.


Maskulinitate ereduak deseraikitzen ari direla diozue. Feminitate ereduak ere etxetik hasita deseraiki beharko dira, ezta?

Zalantzarik gabe. Batez ere zaintzaren eremuan ikusten da deseraikitzeko beharra. Etxeko lanetan apurka-apurka ari gara malgutzen, baina ikusten da emakumeen identitatean zaintzak sekulako pisua daukala oraindik.



EXPRAI

iRRITZIA:



Milaka kilometro

Antton Izagirre

A skotan aipatu arren ez da sekula ere nahikoa izango. Otsailaren 20ko asteburuan milaka herritarrok milaka kilometro egin ditugu Espainiaren kartzela politika salatu eta presoan gerturatzea eta etxeratzea eskatzeko. Komunikabide eta eragile desberdinek alde kuantitatiboa nabarmendu nahi izan dute: herritar asko kilometro pilo egiten.

Ez da halere hori alderdirik nabarmenena. Ikuspegi kualitatiboa, hau da, gizabanako bakoitzak bidaia horretan bizi izandako gorputzaldi, sentimendu eta emozioek erakusten digute auziaren atzean dagoen injustiziaren tamaina. No-

la, astea joan eta astea etorri, etxekoei eta maite dituzten horiei astebeterako bizipoza eta samurtasuna eskaintzearen, senide eta lagunek, ziurgabetasuna, arriskua, mina, atsekabea, tristura eta konta adina emozio bizi dituzten. Askotan esan, idatzi eta irakurri arren, ez dago norberaren bizipena baino erakusle aproposagorik, halako ibilaldiak uzten duen arrastoaz jabetzeko.

Bezperako arratsalde-gauean autobusean sartu, nola hala gorputza kokatu eserlekuan, lorik ezin, giharrek minbera, hamabi orduren buruan minutu batzuetako bisita eta buelta; solaskidea han utzi eta itzuleraren karga, samina, ezinegona,

egun osoa pasatxo da etxeratzera. Birtartean emozioek, emozioek eta emozioek ez dute etenik. Objektiboa da giza eskubideen urraketa argiaz ari garela, Estatuak neurri horretako egoerak ahalbidetu, mantendu eta eragiten dituenen, baina eskubideen urraketa gain pertsonen, preso, senitarteko eta lagunen suntsipena, bilatzen du sakabanaketak.

Hitzez esplik liteke baina behin bederen bizi ez duenak nekez uler lezake astero senideak jasan behar duten neurri horretako ankerkeriak sorturiko oinazea. Bizikidetzaren aldeko lehentasunezko egitekoa beharko luke, euskal herritarrok zutik jarri eta “nahikoa da” oihu egitea. •

Herri boterea

Andoni Egia

O tsaila erdialdean lagun bat, mugimendu sozialetan erreferentziazko militante bat zena, zendu zen Bartzelonan. Twitterren @PoderPopular zeritzon.

Gertakari tristea, mingarria, eta are okerragoa, ekidingarria.

Gu danori, gutako bakoitzari egin zigun azkeneko aldarria, azkeneko garrasia, azkeneko ekintza zuzena. Zuzenean, gutako bakoitzaren bihotzera apuntatuz. Zuzenean, gu guztion bihotzean joz.

Une horretara bitartekoa, normala. Tristea, oso tristea, baino normala. Jendea jaino, bizi eta hil egiten da, betidanik eta betirako, atzera bueltarik gabe.

Une horretatik aurrera pasa zena, ordea, inoiz egin, sentitu, eta bizi izan dudana/du-

gun gauzarik polit, berezi eta sendagarri-netakoa izan zen: gorpua berreskuratu, eta auzoko *ateneu*-an komunitarioki beilatu.

Lagunarekin, azkeneko mozkorra hartu eta azkeneko parranda egin; azkeneko negar, irri eta abesti amaiezinen artean.

Hilotza lepoan hartu, bandera gorribeltza gainean jarri, eta komunikatu gabeko manifestazio batekin, hilerrira arte dagoen azkeneko paseoa, elkarrekin eman.

Azken omenaldian, berak sustatutako borroka ezberdinak kokatzen ziren espazioak bisitatu: kamioi, soinu ekipo, aurkezle eta guzti. Bartzelona geure egin, eta oroimen kolektiboa eguneratuz, ametsez eta borrokez eginak gaudela elkarrekin gogoratu.

Proposatu zuen azkeneko ekintza egin, amestu zuen azkeneko okupazioa burutuz. Egun irekita darraien eraikina berreskuratu, eta leloan dioten bezala, bizitzaz eta elkarrenganako zaintzaz, hutsik zegoen espazioa bete.

Bizitzaren azken uneetan eta lurperatu baino lehen, maitatutako gorpuarekiko bizitzen dugun desjabetze prozesua ekidin genuen. Agur esateko darabilzkigun ohiturak eragiten duten atsekabearekin puskatu, eta gorpua, momentua eta prozesua berreskuratuz, emandako pausu eta burututako ekintza bakoitza kudeatu genuen, kolektiboki, komunitarioki. Legalitatea alboratu eta legitimitatea praktikatu; ezinezkorik ez dagoela erakutsiz, herri boterea inposatu genuen. Eskerrik asko, Pablo. •



Beñat Gaztelumendi
Bertsolaria

Belodromoa

Egunak gose dira, elkar jaten dute gupidarik gabe; bata bestearen atzetik datoz geroz eta azkarra-
go, geroz eta gosetuago eta bihar gauerako ahaz-
tuko zaigu gaurko goiza; beste nor-
baitenak izango dira gaur esaten di-
tugun hitzak, gaur ematen ditugun
pausuak. Errutina deitzen omen zaio
horri: egun guztiak elkarren antzeko-
ak izateari, egunero ordu berean leku
berean eta aurpegi berarekin egoteari;
beste ezer egiterik izango ez bagenu
bezala, nahitaez orain, hemen eta ho-
rrela egon beharko bagenu bezala.

Badira lekuak, ordea, egunei ihes
egiteko gai direnak, aurretik igaro zi-
ren eta ondoren etorriko diren egun
guztien gainetik geratuko direnak,
denbora propioa balute bezala. Belo-
dromoa hori da bertsozale askoren-
tzat. 1997ko Txapelketa Nagusian eto-
rri nintzen lehenengo aldiz. Eta
gogoan ditut sarrerako ilarak, jendea
elkarri begira, elkar agurtzen, eskuak
igurztzen, urduri, ezezagunei ere egu-
non esanez eta Belodromo barruko
jende oldea, betetzen ari ziren aulkien
kolore guztiak; oholatza han, urrun,
txiki eta hauskor eta bertsolariak ir-
ten zireneko leherketa hura, bertso
bakoitza hasi aurreko isiltasun eraba-
teko hura, isiltasunak berak ere bere
oihartzunari ikara balio bezala eta di-
simuluan ihes egindako eztulak eta
bertsolarien ahotsak, hain urrun, hain
txiki eta hain hauskor ikusten geni-
tuen bertsolari haien ahots sendoak;
eta bertsoen ondorengo leherketak,
txaloaldiak; bertso on baten ondoren-
go begirada hunkituak, begirada kon-
plizeak eta zerbaiten parte sentitze
hori; zerbait zehatza izan ez arren, ize-
nik ematen asmatu ez arren, horren
parte sentitzea. Badira egunak ondo-
ren datozenek irensten ez dituztenak;
hamar urte nituen abenduko egun
hartan, oraindik zer zen esaten asma-
tzen ez dudan horren parte sentitu
nintzen egun hartan. Non eta nola ja-
kin ez harren, zer horren parte izan
nahi nuela erabaki nuen egun hartan.

Handik lau urtetara ere hemen gi-
nen, eta lau urte lehenagoko emozio-

ak ere bai, 1997ko final hura, giro hura
espazio eta denboratik kanpo baleude
bezala, gure barruko zokoren batean
ondo gordeta. Ordukoa da kartzelako
gai famatu hura ere: “Aturritik Ebrora
herri bat badela Belodromoa izan dai-
teke testigu”, eta nola Jexux Mari Ira-
zuk Belodromoko pistara ekarri zuen
Euskal Herriko egoera politikoa,
«buelta ta buelta gabiltza baina irten
ezinean». Eta ez dakit zergatik, baina
Belodromoa ikusten dudana aldiro gai
hura etortzen zait burura. Eta badakit
garai txarrak direla epikarentzat eta
hitz handiak krisian daudela, beste
batzuk omen direla gure kezak orain:
lana eta etxea, adibidez. Baina hesiak
gero eta garaiagoak dira Melillan eta
Mexikon eta Palestinan eta Mazedo-
nian; beldurrak hartu du Paris eta ge-
rrak Siria, eta Hego Amerikan eskuina
gora omen doa eta gurean etxegabeak
kutxazain automatikoen aho itxien
aldamenean hiltzen dira gauez Euro-
pako Kulturaren Hiriburuan, eta hau-

rrak leihotik behera botatzen dituzte
Gasteizen eta lantegiek jendea hiltzen
dute eta inauteriek ez dute erasorik
mozorrotzen eta nire baitan ere badi-
ra gunek okupatuak; nik ere altxa dut
ahotsa ondokoa isiltzeko, ni ere isildu
nau beste norbaiten ahots sendoak
eta bai, egunerokoak kezkatzen gaitu,
hozkailuak, soldatak, berogailuak...
Baina egutegiak lokatzaren gainean
eraiki genituen, egunak gose dira, el-
kar zanpatzen dute eta guk ere bai,
guk ere elkar zanpatzen dugu edo el-
karrekin makurtzen dugu burua egu-
nerokotasunaren aurrean, noizbait
hala egiten hasi ginelako, eguneroko-
tasuna ez baita arau bihurtutako ohi-
tura sorta bat besterik. Eta egunak go-
se dira; urteak dira Euskal Herrian
egunak gose direla, horregatik behar
dugu berriz egutegiari ihes egingo
dion egun bat, gaurkoa adibidez, Belo-
dromoko pistatik atera eta hemendik
aurrera datozen egunak dardarka ja-
rriko dituen. •



Badira lekuak egunei ihes egiteko gai direnak; Belodromoa, horietako bat.

Jon URBE | ARGAZKI PRESS

{ koaderno } **Laura Mintegi**

Alderdi berriak eta politika berria

Politika berria ez da horren berria. Politika berriak egiten dituen aldarrikapenak, orain berrogei urte egiten ziren, nahiz eta orduko politikari haiek politika zaharra egiten amaitu duten. Politika berriak badu aurrekaririk, orduko eta gaurko aldarrikapenak berberak direlako: aldaketa, alegia (noiz ez da aldarrikatu aldaketa?), herritarren partaidetza, ustelkeriarik eza, herritarrei begirako kudeaketa, ongizatearen sozializazioa, giza eskubideen errespetua, libreki adierazteko askatasuna, agintarien autoritarismoari galga jartzea, gutxiengoaren errespetua, pluraltasuna aintzat hartzea, ahularen babesa.

Urteen joanaren joanaz praxiak kale egin du, eta hari aplikatu behar zaizkio neurri zuzentzaileak. Ez teoriari bere osotasunean.

Esan egiten da alderdi berriak etorri direla bipartidismoa akabatzerako. Baliteke halaxe izatea Espainia aldean. Hego Euskal Herrian ez da egon bipartidismorik, ez da egon gehiengo absoluturik eta politika bi ardatzen inguruan eratu da, bakoitzak bi beso dituela. Batetik ezker-eskuin ardatza dugu eta lau alderdi nagusiak binaka kokatzen dira ardatzaren bi besoetan: ezkerrean PSE-EE eta EH Bildu, eta eskuinean PNV eta PP. Bestetik, abertzale-espainiarzale ardatza dugu, non beste bi multzo diferente osatzen diren: beso abertzalean PNV eta EH Bildu, eta, espainiarzalean, PSE-EE eta PP.

Lau alderdien artean betetzen dute espektro osoa. Ba al dago lekuri alderdi berrientzat? Nik uste dut Podemosen indarra dela gainontzeko alderdien ahuleziaren isla. Beren meritua baino, besteen desmeritua da. Alderdi bakoitzak ondo egin izan balu bere lana, Podemosek ez zukeen edukiko espaziorik. Podemosen arrakasta neurtzen da gainontzekoen porrotaren tamainaz. Madrilgo Sol plazan kanpatu zutenean alderdiak ez ziren gai izan gobernuaren tiraniatik babesteko, elkarren arteko borrokan entretenituta baitzeuden. Suminduek exijitu zutenean erabaki politikoetan parte hartzeko, alderdiek erantzun zieten alderdi bat sor zezatela. *Voilà!* Alderdia sortu dute eta suminduak elkartu dira, gobernuarekin eta alderdi guztiekin aspertuta.

Hego Euskal Herria ez da Espainia. Hemen gatazkak erradikalizatu du politika eta ez da egon tarte handirik gune kontrajarrien artean. Borroka armatuak markatu zuen *limes*-a, eta alderdiak kokatu behar izan ziren lubakiaren alde batean edo bestean, Euskadiko Ezkerra lehenago eta Aralar ondoren.

Gatazka armatua amaitu da, baina laster sortuko da beste lubaki bat, eta alderdi guztiak (berriak ere bai) alde batean ala bestean kokatu beharko dira, ez baitago erdibiderik: independentziarako prozesuari aukera emango diote, bai ala ez. Podemos ere alde batean edo bestean kokatu beharko da, baina seguru nago Albaceteko Podemos eta Nafarroakoa ez direla izango sentsibiltate berekoak, adibide bat jartzearen.

Nafarroa eta Valentzia, hain zuzen, kasu sintomatikoak dira. Biak ala biak estatu arrazoi izan dira, erkidego biei estatuak erantzukizun berezia egotzi zielako: geldiaraz-

Gatazka armatua amaituta, laster sortuko da beste lubaki bat, eta alderdi guztiak alde batean edo bestean kokatu beharko dira, ez baitago erdibiderik: independentziarako prozesuari aukera eman, bai ala ez

tea independentismo katalana eta *baskoa*, hots, asmo separatistek galga jartzea. Zeregin horren ordainean estatuak ezikusiarrena egin du agintari lokalek dirua eskukadaka lapurtu dutenean, CANen ondasunak poltsikoratuz edo zazpi trama ustel sortuz (Camps, Gürtel, Fabra...) 30 urtean. Bi erkidego hauetako suminduak are eta suminduago daude: Valentziako Podemosekoak (Compromis) Kongresuan talde propioa izateko aukera eduki duten bakarrak dira. Nafarroako Podemosek ere nortasun berezkoa adierazi du eta bertako kideek aurre egin diete, behin baino gehiagotan, Madrilgo alderdikideei. Alderdi hauek, baina, uneren batean argitu beharko dute non kokatuko diren, lubakiaren zein aldetan, independentismoak markatuko duelako, errotik, politika osoa. Orduan ezagutuko dugu egianta, alderdi berrien politika, politika berria den ala zaharra. •

«Biolentzia mamitu dugu eta mamituko dugu, baita estatu feminista batean ere; nola garatu, horra gakoa»

Hasiera guztiek dute amaiera bat, eta elkarriketa hau da “Independentziaz hausnartzen” seriearen azkenengo kapitulua. Lau astez jarraian “Independentzia helburu” liburuak barnebiltzen dituen edukiak xehatu ditugu txoko honetan, independentziara bidean bateko zein besteko bidezidorrak proposatuz. Proposamen ezberdinak mahaigaineratu ditugu, baina guztiek izan dute komunean elementu bat; guztiek izan dute independentzia helburu.

Elkarriketak ezberdinak izan direla frogatzen du azken kapitulu honek ere. Gaur arte aipatu ez dugun kontzeptu bat jartzen du prozesu independentistaren zentroan Jule Goikoetxearen proposamenak: feminismoa. Euskal Estatu Feminista da bere proposamena. Horretarako, egungo gizarte patriarkala biluziko du Goikoetxeak, eta estatu feminista baten zutabeak zein liratekeen aurreratuko du. Irakurketa ezin hobea, beraz, morez tindatu dugun GAUR8ren ale honetarako.

Zein da «Independentzia helburu» liburuan egin duzun ekarpenarekin transmititu nahi izan duzun ideia nagusia?

Hiruzpalau ideia nagusi daudela esango nuke. Ekarpenaren oinarria estatugintza feminista da, eta horren baitan demokraziaren ideari heldu nahi izan diot, berau patriarkala dela argi uzteko; ez soilik kapitalista. Saiakeran ez dut azaltzen nola egin beharko litzatekeen estatugintza feminista hori, nahiz eta ideiarenekin bat edo beste aurrerartzen dudana. Helburua litzateke azaltzea zer den estatua, zer demokrazia, nola ulertzen ditugun... Horregatik jorratzen dut luze eta zabal birsortze sozialaren dinamika. Aipatu birsortzea ezin da estatutik –hau da, estatu egiturarik– gabe egin; horre-

JULE
GOIKOETXEA

IRAKASLEA ETA IKERTZAILEA

Filosofian doktorea, EHUko Politika
Zientzietako irakaslea da egun Jule
Goikoetxea, baita Gobernantza eta Ikasketa
Politikoak masterreko zuzendaria ere.

Aimar Etxeberria Korta



gatik diot euskal demokrazia bat garatzeko erakundeak beharrezkoak direla. Baina harago doa kontua. Aztertu behar dugu egitura horiek zein funtzio betetzen dituzten. Adibidez, zer da estatu demokratikoa? Demokraziaren kontua oso ongi dago, baina horrek ez du esan nahi ez denik dominazio sistema bat. Zentzu horretan, eta birsortzearen ideari helduz, diot egin beharrekoa birsortze demokratikoa dela; baina, zertan datza? Hori dela eta hasten dut saiakera birsortze demokratikoaren ideia azalduz, alderdi objektiboen –erakundeen bidez birsortzen ahalegintzen dena– eta subjektiboen –pertzepzioen– arteko ezberdintasunak azpimarratuz. Behin jada birsortze ariketa azalduta, erakunde funtzioak aztertu eta demokraziaren ideari egiten diot azpimarra, (norma)litate demokratikoa aztertuz, biolentziaren ideian sakonduz. Zentzu horretan, helburua litzateke jendea kontziente egitea guk biolentzia mamitu dugula eta mamitzen jarraituko dugula, baita estatu feminista batean ere. Kontua litzateke, baina, biolentzia hori ze modutan aplikatzen den erabakitzea. Horregatik suerta liteke ariketa apur bat probokatiboa.

Luze eta zabal hitz egiten duzu estatuaz eta demokraziaz. Estatu omen birproduktzioak tresna nagusia. Zer da birproduktzioa eta zergatik da hain garrantzitsua?

Hasteko, esan behar da herriak bere burua gobernatu ahal izateko –hau da, demokraziak– baliabide pila bat behar dituela. Gaur egungo pentsamendu hegemonikoak baina, hots, liberalismoak, egiturei ez die inolako garrantzirik ematen. Ondorioz, tradizio liberalean demokrazia pentsatzerakoan, oro har, egiturak eta estatua zerbait txarra baltz moduan hautematen dira, nahiz eta sozialismoak egoera

apur bat aldatzeko bere ekarpena egin zuen. Zentzu horretan, bi galdera planteatzen ditut: zein da estatu baten funtzioa? Eta zein estatu demokratikoa? Aurrez aipatu moduan, herriak bere burua gobernatzeko baliabide pila bat behar ditu, eta horiek birsortzea litzateke estatu baten funtzioa. Sozialismoak estatu demokratikoaren kontzeptua mahaigaineratu zuenean galdera berriak sortu ziren: nola egin populazioak bere burua gobernatzeko ez bada, adibidez, eskola publikorik? Edo osasungintza publikorik? Edo garraio sistema bermaturik? Aipatu elementuak ez badira bermatzen aurrez gizartean dauden giza taldeak birsortzen ditu estatuak. Eta zer gertatzen da giza talde horiekin? Bada, elkarren arteko ezberdintasunak ditzutela; batzuk aberatsak dira eta besteak pobreak, batzuk zuriak dira eta besteak beltzak, batzuk emakumeak dira eta besteak gizonak... Estatu demokratikoaren eginbeharra izango litzateke ezberdintasun horiek murriztea; horretarako, baina, biolentzia behar du, zuzena edo zeharkakoa.

Biolentziaren gaur egungo adiera, baina, gizon zehatz batzuk pentsatu dute. Horregatik diot biolentziak esanahi ezberdina hartzen duela horretan pentsatzen duen subjektuaren arabera. Kontua da, ordea, azken mendeetan gizon zuri aberatsek idatzi dutela, nahiz eta azken bi mendeetan apur bat sozializatu den hori eta ahots berri batzuk sartu diren, Marx kasu. Horregatik egiten zait interesgarria diskurtso berriak sartzea eta esatea unibertsaltasuna biolentzia partikular batzuk legitimatzeko erabili dela, eta gainera moral kantiarraren bidez ulertu eta justifikatu. Ez dago biolentzia politikoaren analisi fin eta eguneraturik. Unibertsaltasunak menderakuntzan sakontzeko funtzionatu izan du beti; zerbait uniber-

tsal bilakatzen duzun oro partikular berriak sortzen dituzu, baina unibertsaltasunetik pentsatzen diren heinean, periferiaren sinonimo bilakatzen dira, unibertsaltasunak zentroa esan nahi duelako halabeharrez. Zentroa izateko, periferia sortu behar duzu. Espazioa beste modu batera pentsatu behar da.

Unibertsalak partikularra sortzen duela diozu, baina onartzen duzu ere «gu» batzuk egoteko «besteak» batzuk ere egon behar direla.

Subalternoak beti egongo direla diot, zapaltzaileak eta zapalduak, baina zapaltzailea ez da momentu oro zapaltzaile. Posizioaren arabera izango da, bote-rea erlazio baten ondorio delako. Hortaz, zapaldua izatea ez da ezaugarri esentziala, baizik eta egitura baten baitan duzun posizioaren arabera aldatzen den zerbait; estrategiaren arabera aldatzen den zerbait. Unibertsaltasunaren kontzeptioaren oinarrian dominazioaren ezkatze bat dago. Unibertsaltasuna arrazoiarekin eta berdintasunarekin erlazionatzen da –Kant berriz ere–, dominazio ezarekin erlazionatzen da: paradisu kristauaren ideia dago unibertsaltasunaren oinarrian. Nik, berriz, diot hori ezinezkoa dela, ez dela posible ez desiragarri. Eta ez denez posible izango, pentsamendu dikotomiko horren baitan funtzionatzen jarraitzea (“unibertsal-partikular” dikotomia) dominazio prozesu bat mantentzea bezala da; unibertsaltasuna horixe baita, dominazio modernoaren gune kontzeptuala. Unibertsaltasuna modu positiboan hartzen du jendeak, paradisuaren ideia kristauan hazi eta hezi direlako. Bestetik, unibertsalak kontsideratzen diren balioetan demokrazia dago, diote batzuek, baina feminismoa ez –hemen dugu tranpa–; patriarkala da unibertsala kontsideratzen dena, gizartearen gehiengoa patriarkala delako. Gizonak ditu subjektu, gizona baita unibertsala, eta emakumea partikularra.



Argazkiak: Marisol RAMIREZ | ARGAZKI PRESS

Zer da, bada, euskal estatugintza demokratikoa? Nola garatzen da eta zer ezaugarri ditu?

Nola izango den baino, gaur arte nola eman den azertu dut gehiago. Demokratizazioa emateko bi baldintza behar ditugu, gutxienez. Batetik, estatu egitura potenteak –ahalmen politikoa izango dutenak, populazioa gobernatu eta kontrolatu behar dutelako–, eta bigarrenik, eta demokratizazio hori eman dadin, herri antolatu bat beharko genuke, demokratizazioaren aldeko eskaerak egingo dituen. Adibidez, eskaera abortu librearen aldekoa bada, edo berdin eskola publikoaren aldekoa, estatu egiturarik gabe ezin izango ditugu egikaritu. Baina, bestalde, une oro protestan dagoen jendarte antolatu bat ere behar du demokratizazioak; protestarik ezean ez dago ezer demokratizatzerik. Jakin behar dugu ez dela inoiz iritsiko egoera bat non subalternorik ez den izango. Hori hala, helburua protestaren dinamika mantentzea da; paradisu batera inoiz iritsi gabe, demokratizazioan sakonduz une oro. Egun, baina, “gatazka” edo “protesta” bezalako kontzeptuak zalaparta edo iskanbilarekin erlazionatzen dira, pentsamendu liberal eta kristauaren ondorioz. Nik, baina, uste dut gatazka bizi-

«Patriarkala da unibertsala kontsideratzen den hori, gizartearen gehiengoa hala delako. Gizonak ditu subjektu, gizona baita unibertsala eta emakumea partikularra»



tza duin bat mantentzea ahalbidetzen digun zera hori dela.

Estatugintza egitearen beharraz hitz egiten duzu, baina herrigintza ere oso presente daukazu. Zer ezberdintasun dituzte? Zer garatu dugu hemen, eta zergatik?

Ezkerraren partetik estatuaren figurarengan egon den beldur edo gutxiespen horrek eraman du bere jardura guztiak herrigintza edo auzolan gisa definitzera. Estatuarekiko jarrera hori daukazu. Zer ezberdintasun dituzte? Zer garatu dugu hemen, eta zergatik? Ezkerraren partetik estatuaren figurarengan egon den beldur edo gutxiespen horrek eraman du bere jardura guztiak herrigintza edo auzolan gisa definitzera. Estatuarekiko jarrera hori daukazu. Zer ezberdintasun dituzte? Zer garatu dugu hemen, eta zergatik? Ezkerraren partetik estatuaren figurarengan egon den beldur edo gutxiespen horrek eraman du bere jardura guztiak herrigintza edo auzolan gisa definitzera. Estatuarekiko jarrera hori daukazu. Zer ezberdintasun dituzte? Zer garatu dugu hemen, eta zergatik?

dez, zer egiten ari ziren bada ikastolen mugimendua abian jarri zutenean?

Demokrazia patriarkala, pentsamendu heterosexuala eta gizarte patriarkala. Zein dira elementu bakoitzaren ezaugarri nagusiak eta zertan oinarritzen da bakoitza?

Pentsamendu heterosexuala litzateke gizarte patriarkalaren ideologia. Horren inguruko azalpena emateak ahalbidetzen dit patriarkatuaren ideologia aztertzea eta, ondorioz, patriarkatua azaltzea. Sinpleenera joz, pentsamendu heterosexuala litzateke gizartea bi sexutan banatzen duena, sexu bakoitzari balio, zeregin eta prestigio desberdina atxikiz. Aro Modernoaren batera kapitalismoaren besapean sartzen da. Pentsamendu mota horren ondorioz, oso barneratuta ditugun dikotomia batzuetan oinarritzen da gure gizartea antolatze modua: “pribatua/publikoa”, “subjektua/objektua”, “naturala/kulturala”... Pentsamendu horrek zehaztu zuen, gainera, zer izango zen emakume eta zer gizonetzko izatea. Horretarako, filosofia, biologia, soziologia, psikologia eta beste hainbat zientzia erabili zituen; zientzia horiek izan dira, era berean, pentsamendua birsortu dutenak. Oinarrian, mundua sexuen arabera banatzen duen pentsamendua da; sexu bakoitzari, gainera, ezaugarri batzuk ematen dizkio eta horien arabera jokatu beharko du pertsonak munduak garapen “egoki” bat izan dezan. Esklabotzaren pentsamendua da pentsamendu heterosexuala.

Bere ondorioetako bat da gizarte patriarkala. Pentsamendu heterosexualaren aurretiko gizarteari erreparatzen badiogu, jabetuko gara garai hartako ekonomia etxeko ekonomia zela, ez estatala, eta gutxiago multinazionala. Etxeko zereginak ez zeuden horren garbi zehaztuta, eta guztiek egiten zuten lan. Gizarte modernoan sartzean, baina, kapitalismoak guztia garbitu eta ordenatu zuen: gizonezkoak fabriketara bidali zituen, eta emakumeak etxera. Hor oso ga-

rratza izango den esklabismoa sortzen da, emakumeak zentrotik ateratzen direlako.

Garbiketa eta antolaketa horren ondorio da, beraz, gaur egungo (norma)litate demokratikoa. Zer ezaugarri ditu eta zertan antzematen da?

Normalitate demokratikoaren ideiarekin agerian jarri nahi izan dut elkarrizketan hainbeste aldiz aipatu dugun biolentziaren kontua. Demokrazian ez da estatua biolentziaren eragile bakarra; biopolitikaz hitz egin behar da, horregatik diziplinarena. Ez gara ohartzen gure gorputzak zenbateraino dauden diziplina-tuak: klasean ordubetez eserita egon beharra, semaforoa berdean jartzean soilik gurutzatzea... Diziplina horren guztiaren atzean, nahi eta nahi ez, biolentzia dago. Homogeneizatu egin behar izan gaituzte eraginkor egiteko, eta gauza produktiboak ere atera dira, onerako eta txarrerako. Beraz, biolentzia hor dago eta produktiboa izan daiteke, baina identifikatu eta kontrolatu egin behar da.

Biopolitika, berriz, geure gorputzengan dagoen kontrolari deituko genioke. Biolentziaren kontzeptu hori, baina, ez dauka pentsamendu liberalak, eta, ondorioz, ezta populazioaren gehiengoak ere. Atzeko pentsamendua dela esango genuke: demokrazia ona da, horrenbestez, ezin du biolentziarik eragin, biolentzia zerbait txarra baita. Normalitate patriarkal eta modernoak, baina, intentsitate handiko biolentzia darama berarekin.

Zein lirateke Euskal Estatu Feminista baten ezaugarriak? Zertan oinarrituko litzateke eta zein helburu lituzke?

Bost helburu nagusi ezartzen dizkiot Euskal Estatu Feministari. Batetik, “gizon/emakume” kategoria soziopolitiko eta ekonomikoa desagitea, sexuaren kategoria soziopolitikoaren desagerpenaren –bigarren helburua– bidez. Adibidez, diru sarre-ratan eta hezkuntza mailan berdintasun handiagoa emango balitz, aipatu desberdintasunak



asko leunduko lirateke. Badira beste zenbait metodo eraginkor ere, nahiz eta erradikalagoak izan: transfeminismoa eta *queer* mugimendua, esaterako. Hirugarren helburua litzateke kontratu sozialaren haustura. Gure demokrazia kapitalistaren oinarrietako bat da kontratu soziala. Adibidez, estatuarekin kontratu bat daukagu: berak legeak jartzen ditu eta, horren truke –hori baita kontratua–, gu babesten gaitu. Kontratu sozialaren teoriak, besteak beste, dio gizon bati emakume bat dagokiola, zainduko duena eta ondorengotza bermatuko diona. Kontratu sozial hori, beraz, kontratu sexual batean dago oinarrituta; hori da apurtu beharrekoa. Laugarrenik,

«Ez dugu barneratu herrigintza tresna bat baino ez dela, estatuaren demokratizazioa ahalbidetzen duena. Estatu demokratiko bat sortzeko herrigintzatik eragin behar da, baina herrigintza estruktural eginez»

jakintza bide berriak asmatzearen aldeko apustua egin beharko luke Euskal Estatugintza Feministak, gaur egun ezagutza bezala ezagutzen den hori pentsamendu heterosexuala delako. Azken helburua, berriz, litzateke demokrazia feminista diziplina mekanismoetan oinarritua legokeela jakitea. Ondorioz, birpentsatu egin beharko lirateke demokrazia eta biolentzia.

Zer-nolako ezberdintasunak birproduzitu beharko lituzke Euskal Estatu Feministak? Hots, non eta nola garatu beharko luke biolentzia?

Zer-nolako biolentzia jorratu baino –hori borrokan erabakiko

da–, garrantzia handiagoa ematen diot galdera berriak egiteari. Zentzu horretan, estatugintza feministaren galderak ez dut uste izan beharko luketenik, adibidez, zer kuota izan behar dituzten emakumezkoek, edota zer-nolako baldintzak behar diren demokrazia batean gizarte-ari eragingo dioten erabakiak denenean artean hartzeko. Horiek demokrazia liberal patriarkalaren galderak lirateke. Estatugintza feministaren galderak dira, adibidez: zeren arabera jarriko da balioa? Produktzioaren arabera –gaur egun bezala– edo izan daiteke zaintzaren arabera? Zer kontsideratuko da ezagutza? Feminismoa, adibidez, orain ari da sartzen akademian –sozialismoa ez bezala–, pixkanaka-pixkanaka, aurrez ez baitzen ezagutza moduan kontsideratzen. Hori guztia garatu ahal izateko emakumeok erabakitzen hasi behar dugu, gauden gune guztiguztietan, erabakitzeak gobernatzea esan nahi baitu. Emakumeak gobernatzen hastean hautsiko da gizonen gobernu (patriarkatua). Erabakitzen hastean ekingo diogu estatugintza feministari; hots, abiatuko gara aurrez definitutako helburuak erdiestera.

Independentziaz ari garela, zertarako Euskal Estatu Feminista? Eta estaturik bai feminista ez bada?

Ongizate maila hobeak lortzeko, batez ere, baina baita gure etorkizunaren jabe izateko ere. Horretan ez dago korapilo handirik. Helburua ez da hau paradisua bat bilakatzea, une oro demokrazian sakontzea baizik. Horrek esan nahi du sortzen dugun guztiaren gaineko kontrola izatea; burujabe izatea.

Bestalde, eta independentzia eta feminismoa uztartuz, ongizatearen, duintasunaren eta boteretzearen alde egoteak esan nahi beharko luke independentziaren alde zaudela. Baina errealitatea ez da horrela; errealitatea den bezala euskaltzale gehienak ez direla feministak. Orduan, posible litzateke estatu independente baina ez feminista bat.



Jon URBE | ARGAZKI PRESS



IKUSMIRA

BEHAR BEREZIENA, ELKARTASUNA

Behar bereziak dituzten haurren gurasoek osatzen dute Pausoka Elkarte. Auskalo nondik, baina aldiro ateratzen dute indarra jendarteak ahazteko joera duen gaia mahaiaren gainean jartzeko, pausoka eta pixkanaka, behar berezi horiek asetzeko modua egiteko. Oraingoan elkartasunetik idatzitako ipuin sorta jasotzen duen liburua jarri dute mahaiaren gainean. Margot Recast idazleak koordinatu du liburua eta askotariko kontakizunak jasotzen dituela zehaztu du, parte hartu duten idazleek arlo eta estilo ugari

jorratzen dituztelako. «25 idazlek partu hartu dugu bilduma honetan. Hasiera batean ipuin erromantikoak bildu nahi nituen, ni horretan aritzen naizelako. Baina azkenean idazle bakoitzak bere alorreko ekarpenak egin ditu. Batzuek literatura erotikoa egiten dute, besteek beldurrezko kontakizunak... Horregatik bilduma oso anitza da, askotarikoa», zehaztu du Recastek. Hala ere, ipuin guztiek antza omen dute, «denak direlako bihotzetik eta elkartasunetik eginak». Hamar eurotan daude salgai eta, printzipioz,

elkartearen bitartez erosi ahal izango da (pausoka-elkartea@gmail.com helbidean).

Pausokak lau urte daramatza martxan eta Hernanin daukan diziplina anitzeko errehabilitazio zentroa da bere lorpenik nabarmenena. Bertan logopedia, fisioterapia eta terapia okupazionala eskaintzen dituzten profesionalak aritzen dira haurrekin lanean, beren bizi kalitatea hobetu nahian. Gaur egun 70 familiak osatzen dute, eta kopurua goraka doa.

amagoia.mujika@gaur8.info



NEKAZARITZA ETA ELIKADURA EKOLOGIKOA

«Iruditzen zaigu
landare hazkuntza
ekologikoaren
mundu honetan
bizitza osoa
emango dugula
ikasten»

ostiraletan eta hileroko hirugarren larunbatean, Bergaran asteazken arratsaldetan, eta antolatzen diren azoka berezietan ere izaten gara. Bailaran zentratu nahi dugu lehenik eta behin, eta gero joango gara gure influentzia eremua zabaltzen.

Landare ekologikoen eskaintza Euskal Herrian oraindik gartzeko dago. Bezeroak topatzeko zailtasunik ez zenuten izango, ezta?

Egia esan, ez. Bila etorri zaizkigu, eta ez bakarrik ekoizle ekologikoak, baita konbentzionalak ere. Landarea probatu dute, gustatu zaie eta berriz ere bueltatu dira. Nahiko genuke ekoizle ekologikoekin programazio bat egin, beraien dira gure “bezero potentzial” nagusiak, baina momentuz ez dugu lortu. Aipagarria da ere gure bezero nagusiak ez direla ekoizleak, herri baratzetan dabilen herritarrak baizik. Azpimarratzekoa da udal ezberdinetan martxan jarri diren herri baratzeko ekologikoak izaten ari diren eragina; jende asko hurbildu da nekazaritza ekologikora bide horretatik.

Zeintzuk izan dira zailtasun nagusiak ekoizpenaren aldetik, egon badira?

Guretzat zailtasun handiena bertoko bariatateekin lan egitea izan da. Ideologiagatik bertoko hazi bariatate ahalik eta kopuru handienarekin aritu nahiko genuke. Mintegi bezala, ordea, behartuta gaude ziurtatutako haziekin lan egitera, eta bariatate zaharren alorrean oso eskaintza txikia dago ziurtatuta. Horrez gain, gertatu zaigu bariatate zahar bat probatu eta arazoak izatea ere. Gero beste kontu bat esperientzia faltarena izan da: batzuetan uste genuen landarea txarra ateratzen ari zela, baina gero zoriontzera etorri zaizkigu.

Hortaz, zer beharko litzateke bertoko bariatateen erabilpena

Bere lehenengo urtea bete berri du Udalatx mintegi ekologikoak. Uberan (Bergara) alokatutako negutegian, bi emakumek gustuko duten zerbait eginaz bizitzeko lehen pausuak ematen ari dira. Idurre eta Nerea arrasatearrek mendi-lanetan zebiltzala ezagutu zuten elkar. Nereak nekazaritza ikasketak egin zituen unibertsitatean, eta aspalditik zuen lehen sektorean proiekturen bat abiarazteko gogoia, baina, dioenez, «apur bat beldurtia naiz eta ez nuen bakarrik egin nahi». Idurrek, aldiz, landare hazkuntzan saiakera txiki batzuk egin ostean ikusi zuen gogoko zuela lan hura eta proiektuari bueltak ematen hasi zen, «baina argi nuen lan hau ez zela bakarrik egitekoa», gehitzen du. Biek elkar topatu zutenean, Ekoudalatx-en hazia erretzen hasi zen. Hastapenak gogorak direla jakina da, eta momentuz beraientzat soldata ateratzen ez badute ere (aurtengo etekin guztiak proiektura bideratu dituzte), pozik eta ilusioz agertzen dira, «mentalizatuta gaude soldata ateratzea kostako zaigula. Edonola izanda, ez ginen honetan sartu dirua egiteko, gustuko dugun zerbait eginez bizitzeko baizik».

Zer moduz moldatu zarete zuen lehenengo urte honetan?

Nahiko ondo, nahiz eta etengabe hanka sartzen eta ikasten goazen. Biolur Gipuzkoatik laguntza handia jaso dugu. Egia esateko, iruditzen zaigu landare hazkuntza ekologikoaren mundu honetan bizitza osoa emango dugula ikasten, harrigarria da zenbat hazietxe, landare mota, bariatate, hazkuntzarako lehengai... dauden. Eta negutegiaren maneiari buruzko kontuak! Lehenengo urte hau proba modura hartu dugu, bion arteko harremana lantzeko, negutegia gobernatzeko gai garen ikusteko... Orain gauzak argiago

dauzkagu, eta badakigu mugitu behar garela; negutegi handiagoa behar dugu, hau txiki geratu baitzaigu lehenengo urtetik. Gainera, arazoak eman dizkigu udaran; bero handia egiten zuen, ez zegoen modurik aireztatzeko eta landare asko hil zitzaizkigun.

Zer du berezitik landare ekologikoak?

Ortuari ekologiko baten lehenengo pausua da: landare ekoizpen konbentzionalen gertatzen denaren kontra, guk ez ditugu fitosanitarioak sistematikoki erabiltzen, eta erabilia ere, beti neurtzen saiatzen gara. Gainera, beste mota bateko sustantziak dira, ez dira kimika sintetikotik eratorritako pozoiak. Ezjakintasun handia ikusi dugu azoketan bezeroen artean, batzuek ez dute sinesten gurea landare ekologikoa denik, itxura “onegia” duelako. Uste dute landare hazkuntza ekologikoan ez dagoela baliabiderik ongarritzeko, edo izurri eta gaixotasunak tratatzeko. Baina bai, badaude, eta bai, ekologikoan landare ona –eta garbia– egin daiteke.

Itxura aipatu duzue. Merkaturan ohikoenak dira kolore ilun dirdiratsua duten landareak. Horiek dira onak, ala «dopatuta» daude?

Horrenbeste urtean landare konbentzionalen kolore berde ilun ia urdinera ohituta, jende askok pentsatzen du hori dela landare on baten ezaugarria, baina kolore horrek azaleratzen duena nitrogeno gehiegikeria da, eta, horrek, beste gauza batzuen artean, izurrien arazoak ekarriko ditu. Guk ongarritzea materia organikoarekin egiten dugu; landareak dagoen erritmoan hazten dira, hazi ahala indartuz doaz eta kolorea naturalagoa dute, berde argiagoa.

Nola egiten duzue merkaturatzea?

Mintegian bertan saltzen dugu, eta horretaz gain bailarako azoketara ere joaten gara: Arrasaten

IDURRE ARANGUREN ETA NEREA ALTUNA

EKOUDALATX MINGE EKOLOGIKOA

Ekoudalatx mintegi ekologikoaren (Ubera, Bergara) sustatzaileak dira Idurre Aranguren eta Nerea Altuna. Urtebete igaro berri da proiektua abiatu zutenetik.

ENEK

Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua



Argazkia: GAUR8

«etxeko erabileratik» erabilerak profesional orokortu batera pasatzeko?

Araudiak moldatu behar dira, horrelako ondare garrantzitsu bat gal ez dadin. Horrez gain, haziaren kalitatean ere hobetu behar da, mintegiekin berme guztiak izan ditzagun hazi bat erabiltzeko orduan. Eta ekoizleek ere apustua egin behar dute. Noski, horretarako ekoizpen maila minimo bat izango duten bermea behar dute.

Hibridoak erabilerak ekoizpen ekologikoak onartu behar duen kontraesanetako bat da?

Hibridoak ekologikoan erabiltzen dira, eta egia esateko kasu askotan ekoizpenaren aldetik abantailak dituzte, baina gure ustez, hein batean behintzat, pentsamoldea aldatu behar da. Adibide bat jartzearren: guk geuk Aretxabaletako tomate morea egiten dugu, bertoko barietatea, bailarakoa gainera. Baina batzuk etortzen dira tomate hibridoak eskatzen, hura besterik ez dute nahi, eta guri hori ulertzea kostatu

egiten zaigu; azken finean, tomateak euskal kliman ondo egokitzen ez den landarea da, barietate guztiek, baita hibridoek ere, arazoak izaten dituzte. Hori horrela izanda, zergatik ez bertoko barietateen alde egin?

Zuek, hortaz, ez duzue hibridoak erabiltzen?

Bai, noski erabiltzen ditugula. Zuk zurea egin behar duzu, baina bezeroa ere zaindu behar duzu; ez badiozu nahi duena ematen, galdu duzu. Gainera, mintegiko ekoizpenaren aldetik –hau esatea guretzat apur bat mingarria bada ere–, hazi hibridoak hobeto moldatzen dira, oso erretze ona izan ohi dute. Bestalde, baserritarren ikuspegitik, sarri ekoizpen maila hobea dute, eta zentzu horretan ulergarria da horiek aukeratzea. Baina hazi hibridoak soilik lehenetsiz gero, hazien multinazionalen jokoa egiten zaie, horregatik ahalegintzen gara oreka bat mantentzen, eta hibridoak ez diren barietateak aukeratzen, badaudelako ekoizpen maila oso onak ematen dituztenak.

Nekazari ekologikoen ezaugarri bat erabiltzen duten produktu aniztasuna omen da. Zein da zuen sentsazioa?

Orokorrean bai, horrela da. Egia da ere batzuetan kostatu egiten dela gauzak berriak sartzea, ortugileak ohituta daude landare mota eta barietate jakin batzuetara eta beti ez daude prest gauza berriak probatzeko. Asteroko otarrekin lan egiten duten baserritarrek prestutasun gehiago dute, “gauza arraroen” bila etortzen zaizkigu otarreko eskaintza handitzeko. Herri baratzetan dabilen jendeak ere gauza berriak probatzeko joera du. Hazi ekologikoen munduan eskaintza handia dago (dena esateko, gehiena Europako beste herrialde batzuetan). Guk aurten 100 barietate inguru probatu ditugu.

Emakumeek zailago dute lan munduan aurrera egitea. Zuen kasuan, abantaila edo desabantaila da emakume izatea mintegi bat aurrera ateratzeko?

Guk uste dugu abantaila bat dela. Emakumeak betidanik egon dira

haziekin lotuta, gure izaeran dago zaintzarako sen hori. Gure proiektuaren kasuan, abantaila da ere familiaren eta lanaren kontziliazioan hobeto antolatzeko moduan gaudelako, ama izan –Nerea bada– eta lan egiteak dauzkan zailtasunak ulertzen ditugu eta hobeto moldatzen gara. Gainera, hemen ez dago rolik!

Esan ohi da nekazaritza ekologikoak emakume gaztearen aurpegia duela. Zuen bezeroen artean horrela al da?

Bai, geroz eta gehiago gainera. Proiektu askotan, emakumeak dira nagusi, gurea bezalako kasu gehiago ere badaude, bakarrik emakumeak garatzen ari diren proiektuak alegia.

Lehenago proiektu berria aipatu duzue.

Negutegi on bat behar dugula argi dugu, eta horretarako hemendik mugitu behar gara. Ikusi dugu inbertsioak egitea beharrezkoa dela gurea bezalako jardueraren batean. Lur bila ari gara, erosteko begira egon ginen,

baina ezinezkoa da, astakeriak eskatzen dira. Gure bailaran lursailak egon badaude, baina guretzat egokienak izan litezkeenak (lauak, ibaietatik gertu) industriarentzat gordeta daude, edo urbanizagarriak dira. Hori ere, gurea bezalako jardueraren baten bidez oztupo handia da: negutegia jartzeagatik etxebizitza bat jartzeagatik besteko tasak eskatzen dizkigute, ez dauka inolako zentzurik. Politikak aldatu behar dira, eta hori argi gelditzen da ibai ondoan dauden lursailekin, babestuta egon beharko lirake, eta jardueraren bat eginez gero nekazaritza ekologikoarekin lotutakoak beharko lukete izan. Eta, noski, tasak errebisatu beharko lirake: esaterako, 100.000 euroko aurrekontua duen nekazaritza proiektu batek 20.000 euro ordaindu behar baditu tasatan, proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa kolokan jartzen da. Diru laguntzak badaude, baina gero, horrelako kontuekin, alde batetik ematen dizutena bestetik kentzen dizute.



Oihana Iguaran, Amasako paraje ederrean. Andoni CANELLADA | ARGAZKI PRESS

infraganti OIHANA IGUARAN

Bere herriko, Amasako, Iturri-goxo tabernan harrapatu dugu Oihana Iguaran. Bertso kantuan ibiltzen den kultur etxearen ondoan eta udan liburu batekin egoteko gustatzen zaion ermitako txokotik hurbil. Ikuspegi ederra dago; Ernio ageri da zurituta. Ilusioz dago gaztea, Gipuzkoako finalaren ondotik egiten hasi den plazekin eta mila proiektuekin.

Txori bat eskuetan izatea hobeki dela diote, baina hegan dabiltzan txoriak maite ditu Oihana Iguaran Barandiaranek (Villabona-Amasa, 1991). Ikusi bertzerik ez dago zenbat proiektutan dabilen, eta zenbat gehiago egin nahiko lituzkeen. Aitzinetik bide bat ibilia bazuen ere, joan den abenduan jokatu zen Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finalak egin du eza-gun eta plazetan kantatzeko aukera ekarri dio.

«Aste honetan eta datorrenean zazpi-zortzi saio edukiko ditut, eta nik normalean urtean egiten nituen zazpi-zortzi saio. Oso-oso pozik nago horrekin. Egia da Martxoaren 8aren buelta honetan saio gehienak neskenak direla. Ez da kasualitatea». Elkarrizketaren egunean, ostegunean, Usurbilen kantatu behar zuen bertso afarian. Biharamunean, aldiz, Erniarraitz sariketako finala zuen. Gaur saio musikatua du Andoainen, eta, bihar, Elizondon. Gogotsu dago. Gainera, musikatuak inbi-

dia eman izan diote beti eta lehenengoa probatuko du. Urtarrilean Bertso Egunean ere abestu zuen aurrenekoz, Donostiako Kursaal jauregian, eta oroitzapen hagitz polita du. **TXAPELKETA, AURRERAPAUZO HANDIA** Gipuzkoako Bertsolari Txapelketatik gelditu zaiona, oro har, «aurrerapauso handi baten sentsazioa» da. «Saio batzuk egitea zen nire helburua, abestu egin nahi nuen plazan, eta badirudi hori beteko dela. Pixkanaka deiak iristen ari dira eta alde ho-

rretatik oso-oso pozik eta helburuak oso beteta. Horretaz aparte, esperientzia bezala, zoragarria izan da, batez ere bukaera aldera, inguruko guztien beroarekin. Bertso eskola bezala ere gehiago bildu gaitu». Harituz Tolosaldeko bertsozale taldean egin duten lana nabaritzen dela eta koska bat gora egin dutela uste du. «Batzuek oso garbi zuten Euskal Herriko Txapelketara sartzen saiatu behar genuela; beste batzuek urruti samar ikusten genuen. Bederatzi aurkeztu ginen eta hiru iritsi gara. Ederra da mugimendua ekarriko duelako». Bailara herri txiki eta bereiziz osatuta dago eta bertsolariekin ere hori gertatzen ari zen. «Herri bakoitzean bat edo bi gelditzen ginen eta horrek bertsotan aritzeko aukera murritzten zuen». Orduan, bat egin zuten. Bertsoak sortzea, irakaskuntza eta ikerketa bultzatzen dituzte, eskualdeko ikuspegiarekin. Bertso eskoletako haurrek kide gisa funtziona dezaten saiatzen dira. «Horren barruan oso polita izan da Harituz-eko kideak txapelketan epaile eta gai-jartzaile ibili izana. Bertsoa bizi nahi duen edozeinek bere tokia topatzea nahi dugu, denon artean sortu ahalko dugulako eskaintza bat eskualde mailan. Eta martxa polita dagoela uste dut».

ISILDUTAKO GAIEN AHOTSA Parekidetasunari dagokionez, bertsolaritza aitzindari izan den sentsazioa izan du Iguaranek batzuetan. «Txapelketak antolatzen direnean gauza batzuk zaintzen dituzte, bertsolarien bi abizenak emanez, adibidez. Lan dexentekoa egiten ari direla uste dut, bai gai-jartzaileak, beste gai mota batzuk plazaratuz, beste era bateko pertsonaiak murrastzen uzten dutenak, eta bai bertsolariak, beste errealitate batzuk islatuz eta zabalduz». Bertsolari profila bezala, entzulearena ere anizten joan dena dela pentsatu nahi du amasarrak, diskurtso ezberdinak egin ez esparrua zabalduko delako. Ahalegin kontziente bat ikusten du espazio publikoan ohikoak ez diren gaiak plazaratzeko.

«Plazetan ez dago Roxi Lazkanoren
belaunaldiko emakumeen ahotsik. Ezta Iñaxi
Etxaberen adinekoenik ere. Kontatu ahalko
lukeen guztia plazetan balego...»

«Oso fase polita da: dena daukazu egiteko eta
esateko, eta, aldi berean, nora ez moduko bat
da». Lehenengo plazetan «oso gustura» dabil,
ilusioz, deskubritzen

Errate baterako, Gabon gauean afaltzen ari ziren amatxi baten eta zaintzailearen paperean jarri zituzten saio batean bertsolariak. «Amona goxoa irudika dezakegu, baina errealtatean izan daiteke ozpina. Kasu horretan, Miren Amuriza eta Maialen Lujanbio esplotazio sutil bat marrazten ahalegindu ziren. Saiakera txikiak dira. Ikaragarri estimatzen ditut eta aurrera garamatzatela uste dut»

ERAGITEKO ESPARRUA

Urte gutxitan aldaketa handia gertatu dela deritzo. Lehen emakumezko pertsonaiak gizonezkoek marraztuak ziren. Gero, emakume bat edo bi zeuden. Eta orain emakume hagitz ezberdinarik dabilta plazan. «Interesgarria da ikustea bakoitzak nola ikusten dituen gauzak. Ez duzu bat jartzen denen hitzaren ordezkari, emakumeen hitza ez delako bat». Bertsolaritza eragiteko esparru txiki bat dela eta diskurtso berriak plazaratzeak jendeari pentsaraziko diola sinestea gustatzen zaio Iguarani.

Plazetan ez dago Roxi Lazkanoren belaunaldiko emakumeen ahotsik. Ezta Gipuzkoako finalean aditu genuen Iñaxi Etxaberen adinekoenik ere. «Ez gaude ohituta emakume zahar baten ahotsa entzuten. Kontatu ahalko lukeen guztia plazan balego... Hutsune handi bat dago».

Irailetik ahalduz bertso eskolan biltzen ari dira hilabeteen behin emakumezko bertsolari batzuk. Hitzaldiak izaten dituzte aurrena, gero gorputz eta arnasketa ariketa laburrak egiten dituzte eta ondotik praktika, kantuan. «Gai-jartzaileek lan handia egiten dute bilatzeko gure diskurtsoarekin non eragin dezakegun. Galdera dexenterekin ateratzen gara».

«Polita da belaunaldi ezberdinak biltzen garelako, tartean Roxi, eta luxu bat da entzutea nola kantatzen dien gaiei, burutik pasa ere egiten ez zaizkigun ikuspuntuetatik». Hilabeteen behin elkartzen badira ere, harremana aunitzez handiagoa bihurtzen ari da. «Hausnarketa aldetik oso inportantea izaten ari da eta praktikara bideratuta dago, bertsotara. Fruituak emango ditu».

Gazteak uste du pertsona bakoitzak duela zerbait berezia kontatzeko. Bertsolariaren lana egokitzea ere bada-eta, Iguaranen arabera, hor erabaki behar dute beren izaeraren ze parte egokitze prest dauden eta zertan ez duten men eginen. «Gaztetxe batean ‘gora autogestioa’ kantatzen baduzu txalotuko zaituzte, baina galde dezakezu ‘zergatik dauzkazue 50 Coca-Cola kaxa?’. Oreakan ibili behar duzu, zer entzun nahi den eta zer kon-

tatu nahi duzun. Batzuetan bat datoz eta bestetan ez».

Eredu pila ditu Amasako gazteak eta aunitz gustatzen zaio eta interesatzen zaio bertzeek diotena aditzea. Erreferente ezberdinak ikusten ditu eta poza ematen dio horrek. Denengandik hartu eta berea eraikitzen doa. «Oso fase polita da: dena daukazu egiteko eta esateko, eta, aldi berean, nora ez moduko bat da». Lehenengo plazetan «oso gustura» dabil, ilusioz, deskubritzen.

Amaia Agirrerekin egin zituen lehen urratsak. Berarekin ezagutu ditu erreferentziak eta bera izan zen lehenengotarikoa herrietan sakabanatuta gelditu ziren bertsolariak elkartzeko. Orain ere ondoan du, bai berak eta bai kideek. Berarekin sortu zen taldeak aitzinera segitzen du, Agirre barne, eta hagitz inportantea da. Egunotan saio batzuk ditu berarekin eta ilusioa egiten dio.

OINKARI DANTZA TALDEAN

Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasi zuen Iguaranek eta profesionalki hortik abiatu da. Dantzan ere badabil, Oinkari taldean, 6 urte zituenetik. «Herriko dantza talde bat da, baina emaila aldetik askotan profesionaletik gertuago ibiltzen da. Dedi-

kazio aldetik ere bai». Azken urteetan Korrontzi folk taldearekin dabilta

Orokorrean, astean bi orduko bi entsegu izaten dituzte. Gertatzen dena da proiektu berriren bat esku artean izaten dutenean behar adina izaten dela. «Azken lanaren estreinaldia uztail erdian izan zen eta ikasle guztiak apunteekin gogoratzen ditut entseguetan, azterketa garaia zelako ekaina. Egia da gero emaila oso-oso polita izaten ari dela».

Dantza antzerkiarekin elkartzen ari dira, Agurtzane Intxaurrearekin batera. «Istoria bat kontatzen dugu dantza bidez. Azken lana ‘Itsasoaren emazteak’ izan da. Gorputzarekin adierazten genuena aurpegira ekartzen saiatu gara. Ezberdina izan da guretzat, oso lanketa interesgarria, eta publikoarengana iristeko hoberen funtzionatu duena Agurtzanerekin egindako lana izan da, jendea hunkitzearaino. Horrek asko ase gaitu eta uste dut hortik joango garela».

“Itsasoaren emazteak” obraren emanaldi gehiago dituzte udaberrian, proiektu berria marraztu nahian ere badabilta, eta, bitartean, emanaldi bereziak sortzen zaizkie. Berriki Salvamento Marítimo Humanitario Egeo itsasoan errefuxiatuei

laguntzen dien taldearen aldeko ekitaldi baterako pieza berezi bat prestatu zuten.

IKERKETA PROIEKTUA

Bertsoa eta dantzaz gain, ingeleza irakasten du Iguaranek Elduaieen akademian. Gizarte Komunikazioko masterra eta Bergarako Idazle Eskolako graduondokoa ere egiten ari da. Gainera, hausnarketak plazaratzen ditu Tolosaldeko Atarian.

Masterrean, bertsolarien mezuak publikoari nola eragiten dion eta publikoak berak nola eragin dakiekeen mezu horiei aztertu nahiko luke. Proiektua planteatzeko fasean dago orain. Ekaina eta iraila bitartean aurkeztuko luke eta aukera baleuka gustatuko litzaioke garatzea. «Beti pentsatu dut bertsolaritza bidez diskurtso alternatibo bat lantzen dela eta interesgarria da aktualitate aldetik zer lantzen duten aztertzea eta ateratzen diren albisteekin konparatzea, jakiteko ze ikuspegi ematen dituzten, zein gai hartzen dituzten eta zeintzuk alboratu».

Badaki aukeratu behar duela, ikerketa zehaztu, baina hori kostatzen zaio gehien. Dena hartu nahiko luke, dena ikusi... hegan dabilta txorien gisan. •

Maidar Iantzi Goienetxe



Oihana Iguaran bertsolari, irakasle eta dantzaria ermita ondoko txokoan, Ernio elurtua atzean.

Andoni CANELLADA | ARGAZKI PRESS



Maria Gonzalez Gorosarri - @albistetan
Kazetaria eta ikertzailea

Europa gerran dago

Estatu Islamikoak (Daesh izenekoak) Europari noiz eraso egingo dion beldurpean bizi gara. Mendebaldeko estatuek herrialde musulmanetako diktaduretan parte hartu izan ez balute bezala. Mendebaldeko estatuek herrialde musulmanetan gerrak abiatu izan ez balituzte bezala. Parisko atentatuen harira, baina, François Hollandek Europaren egoera berria gudarekin parekatu zuen:

- «Frantzia gerran dago» (“Le Monde”, 2015/11/16).

Lehendik, 2015eko urtarrilean “Charlie Hebdo” aldizkari satirikoari eraso egin ziotenetik, Europako eta Mendebaldeko herrialderik aberatsenek gudaren bidea hartuta zuten (Europar Batasuna, Erresuma Batua, Alemania, Ameriketako Estatu Batuak, Kanada, Belgika eta Espainia, besteak beste):

- «Trece países señalan el yihadismo como su peor amenaza» (“El País”, 2015/01/11).

Guda izateko, etsaia behar dugu. Horretarako, herrikide musulmanak kriminalizatu dituzte. Hedabideek etsaiaren irudia erakutsi digute, Euskal Herritik bi mila kilometrora izandako lapurretak eta erasoak izan arren, Kolonian (Alemania), esate baterako. Etsaia irudikatzeke, masiboki oldartzen zaizkigula zabaldu zuten hedabideek. Justizia ministroaren iritziz pertsonala baino ez zen, baina aurreiritzi arrazista hori hedabideetan zabaldu zen, horixe frogatzen zuen datu bat ere egon ez arren:

- «Los ataques en Colonia fueron ‘coordinados’, dice el ministro: El titular de Justicia, Heiko Maas, aseguró que el hecho de que ‘una horda semejante se reúna a cometer delitos’ debió ser algo planificado» (Deutsche Welle, 2016/01/10).

- «Berlín cree que los ataques de Colonia estaban planeados» (“El Correo”, 2016/01/11).

- «Mil hombres acosan de forma coordinada a decenas de mujeres en Colonia» (Eitb.com, 2016/01/04).

Etsaia gurean dugula erakusteko, erasotzaileen artean errefuxiatuak zeudela zabaldu zuten hedabideek. Ondorioz, gurera etorritako errefuxiatuek modu masiboan eta koordinatuan eraso egiten ditugutela ulertu genuen. Herri-

rrek, orduan, errefuxiatuen aurkako jarrerak azaldu zituzten. Alemaniako Gobernuak errefuxiatuen aurkako legeak indartzeko aprobetxatu zuen. Buruzagiek pozoitutako informazioa zabaltzean, politikariek nahi zuten politika arrazista aurrera eramateko bidea eman zieten hedabideek. Errealitateak, handik hilabetera, gezurrak agerian utzi zituen:

- «Solo tres de los 58 hombres detenidos por los abusos sexuales de Nochevieja en Colonia son refugiados» (Eldiario.es, 2016/02/15).

Gerora egiaztatutako gezurrek, hala ere, ez dute buruzagi politiko- en aurkako erreakziorik eragin. Armadak Europako kaleak hartu arren, ez gara kexatu. Frantziak urtebete militarizatuta darama: “Charlie Hebdo” aldizkariari eraso egin ziotenetik, hain zuzen. Ondoren, azaroan, Pariseko hiritarrak hil zituztenean, Frantziak larrialdi egoera ezarri zuen Hollandek. Orintsu, beste hiru hilabetez luzatuko dute, maiatzaren 26a arte.

Larrialdi egoeran, Frantziak Siria bonbardatu du, Konstituzioa aldatu du eta frantziarren eskubideak murriztu ditu. Larrialdi egoeran, manifestazioak debekatuta daude Frantzian, baina herri-tarrek militarizazioari aurre egin diote eta kalera atera dira. Hollandek, orde, propagandarekin erantzun du, “larrialdi egoera” esamoldea txantxetan erabiliz. Hedabideek, zoritxarrez, kasu egin diote:

- «Hollande dice que Francia está en ‘estado de emergencia económica y social’: El presidente francés presenta un plan dotado con 2.000 millones para combatir el paro de larga duración» (“El Periódico”, 2016/01/18).

Frantzian ez ezik, Italian ere armada kalean daukate. Hedabideek beldurraren berri ematen dutenean, herriarren erreakzio politikoa ekiditen dute:

- «El Jubileo empieza en Roma marcado por el miedo a un ataque yihadista» (“El Mundo”, 2015/12/08).

- «Jubileo: Erroman soldaduak, gehienezko alertan. Las-ter, beste 1.500 militar gehituko zaizkie» (“Corriere della Sera”, 2015/12/21).

Europa gerran dago: herrikide musulmanak etsai bihurtu dituelako eta armadak kalea hartu duelako. Eskubideak murriztu dizkigutela kontuan izanda, Europa herriarren aurka gerran dagoela ematen du. •



Europa gerran dago, herrialde musulmanak etsai hartuta. GAUR8

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



FONDO FAMILIA IRIONDO

EUSKAL PILOTARIAK TXINAN, JAUNT XOEN BIZITZA ERAMANEZ

1934ko irailaren 20an inauguratu zuten Tianjin hiriko -Txinan, Pekinetik 130 kilometrora- frontoia, "Il Palazzo" izenez ezaguna zena. Frontoia eraikitzea Fumigalli enpresari italiarraren laguntza ekonomikoari esker izan zen posible, eta Bonetti italiarrak eta Kessler suitzarrak egin zituzten arkitektura lanak. Tianjinen bezala, Shanghain ere bazen frontoi bat. Cecilio Urizar pilotariak elkarriketa batean adierazi zuenez, jauntxoak bezala bizi ziren, morroi, sukaldari, gidari eta abarrekin. Orotara 50 euskal pilotari inguru bizi izan ziren Tianjin eta Shanghai artean garai haietan, eta Teodoro Jauregi pilotari ohiak eramaten zuen bi frontoien mantenua. Oraino zutik da Tianjineko frontoia hartzen zuen eraikina, baina iraultza txinatarraren ostean "Herriaren Teatro Handia" bezala bantaiatu zuten. Irudia Jose Maria Iriondo Azpiriren artxiboaren parte da, eta bertan 1936an Txinan zegoen euskal pilotari multzoa ikus daiteke. Iriondo Azpiri bera ere Txinan jaio zen, eta pilotari bezala ere aritu zen.



GAUR8 *ireki gure leihoa*

